

1994ko apirilak 15

231. zenb.

PRESS




ARRASATE



Transplantea
Itxaropena
eta zoriona

IN
FRAGANTI

HALA BAZAN





Ane Gabarain • Idoia Sagarzazu • Olatz Beobide

EZ BAZAN



zuzendaritza: EDI NAUDO

SAR DADILA...



ARRASATE
APIRILAK 16, LARUNBATA
GAUEKO 10,30etan
SARRERA: 500 PTA
GAZTE TXARTELAREKIN: 300 PTA



ARRASATEKO UDALA



EUSKADI
IRRATIA



Egunkaria

Turkiar deliziaz

Orian dela aste batzuk, nire gurasoek Bilbon igaro zuten larunbata. Erorstetxe erraldoi horietako batean, turkiar astea zela, eta lurralde harekiko sinpatia dela medio, "Delicias Turcas" deiturikoak gordetzen zituen kaxa polit bat erosi zuten.

Igande bazkalostean delizia horiek dastatzera gindoazela, zur eta lur geratu ginen, kaxa dotoreak zuena, gominola soil batzuk zirela konturatu ginenean.

Nire gurasoen jarrera ez da salbuespen bat gizarte honetan, izan ere ontziari edukinari baino garrantzi gehiago ematera ohitu gara.

Lehengo egunean, Francisco Umbrak bere ohizko artikulu bikain batean bere harridura azaltzen zuen, bi

apaiz, leku eta egun ezberdinetan, kaleko jerga eta mordoiloan hitzegiten entzun zituera. Umbrak, edukinak huts egiten duenean ontziari edo edukitzaileari heldu behar zaiola atera zuen ondorioa. Hau da, apaizek jendea elizaratzeko, mamiagatik ezin dutenez, mezuaren itxura lantzearen beharrez aurkitzen direla.

Hizkuntzaz ez bada ere, Arrasaten gauza bera pentsa liteke, estetikaren bidez oraingoan. San Juan Bataiatzailearen parrokia berriztapen lanetan murgildurik daukagu, bera estaltzen duen hori koloreko tutuen muntai ikusgarriak argi uzten duen legez.

Monumentu artistiko eta historiko bezala dagokionez, obren egokitasuna ez dut uste zalantzan jar daitekeenik. Baina edozein jau-regi edo eraikuntzarekiko desberdintasuna gogora dezagun: horma horien artean

Jainkoaren izenean hitzegiten da; eta arlo honetan, kanpoko kutxa apaindu beharrez, gominolak beste jaki hobe batekin ordezkatu beharko genituzkeela uste dut.

Antisorgailuak, abortoa, eutanasia eta homosexualitatea (beste askoren artean) debekatzea, eta aldiz, heriotz zigorra kondenatzen ez duen bitartean, elizak nahi duen adina obra egin dezake, baina bere etxeko banku hotzek, hutsik jarraituko dute, ziur nago.

ION STEGMEIER

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. Zuzendaria: Arantzazu Loidi. Kazetariak: Luis Fernandez, Maider Egües, Maria Agirre. Publizitatea: Amaia Gabilondo (77 08 15). Administrazioa: Agurtzane Gaintzarain eta Itsaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15). Maketazioa: Txos Azurmendi. Kolaboratzaileak: Mikel Irizar, Eukeni Olabamieta, Arantxa Lizaso, Blanka Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udako Inguurugiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Itaki Lasa, Xabier Letona, Ihintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Lihor Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kopi, Daniel Gokiolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. Banaketa arduraduna: Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. Tirada: 5.500. Lege-Gordailua: 1124/88. ISSN: 0214-4654. Frankeo kontzertatua. Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Joseba Valles



Zatoz ezagutzera

ZUHAITZ

¡atetxea!



Memesa


79 42 22



Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Euzko Jauriaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du

Izadi

Sendabelarrak, dietetika eta kosmetika naturala.

Sendagile naturistaren kontsulta

Argaltze terapiak



Sebero Altube, 8 79 75 79
Kontzeziño, 8 79 03 56



HAURTXOA

Arrasate Pasealekua 4,
Tfnoa: 79 14 90
ARRASATE



mokasin

Zapatak eta osagarriak

Kontzeziño, 6
Tfnoa: 76 06 78
ARRASATE

ARRASATE

HARPIDETZAK

PRESS



77 08 15

Soldadutzarik gabeko uhartea

ntsumiso adiskide:

Ondo al doa Inkoheren-tziaren itsaso zabalean zehar egiten ari zaren bidaia? Gu, lemazain trebea zarelakoan gaude eta aurrerantzean ere adoretzu jarrai dezazun, bultzadatxo bat ematera gatozkizu.

Asko zarete jadanik ur arriskutsu horietarantz ausardia osoz itsasoratuak; bakarka hasieran, taldeka gero, "zuzentasunaren" ize-nean urperatu nahi zaituzten olatuei aurre eginez. Oraindik Neptunok ez daki (edo ez du jakiterik nahi), alperrik ari dela, batzuk urperatu arren ez duela ezer lortuko. Izan ere, gero eta gazte gehiago aterako da itsasora, askatasun egarrikeraginda, soldadutzarik ez dagoen uhartearen bila.

Zenbat eta gehiago izan, orduan eta lehenago aurkituko dugu uharte hori, eta jakin ezazu, gu behintzat laguntzeko prest gaudela, bidaia latz horretarako indarra eta atsedenerako gure kaia eskainiz.

Eutsi lema eta segi aurrera, soldadutzarik gabeko uhartea aurkitu arte!!

IRAKASLE ESKOLAKO
IKASLEAK

Umeentzako moda



Ferrerias Kalea, 34
ARRASATE
Tfnoa: 79 97 86

Errenta aitorpena zuzen aurkeztearen aldekoa zara?



Mari Carmen Sanchez.
Etxekoandrea (49 urte)

Nik behintzat zuzen aurkezten dut eta uste dut guztiok horrela aurkeztu beharko genukela. Baina iruditzen zait, gutxiengoz bakarrik aurkezten dugula behar den moduan.




Agustin Zabaleta
Jubilatua (66 urte)

Guk intentzio onarekin eta zuzen egiten dugu, baina tranpak egiten dira haginkadatik eman ez dezaten.



Angel Alonso
Dendaria (32 urte)

Dendariok gehinetan tranpatxoren bat egin behar izaten dugu, bestela larregi kentzen digute eta.



Alejandro Baladrón
Jubilatua (61 urte)

Nik nahiago dut zuzen egitea, horrela guztiok urtetan dugu eta. Ez egiteak guztiok eragiten digu. Gainera, gaur egun zaila da iruzurrak egitea.



Juanita Laskurain
Etxekoandrea (56 urte)

Guk zuzen egiten dugu eta goian daudenek, berriz, tranpak egiten dituzte. Baina gauza hauek legerari jarraituz egin behar dira.



Marcelina Zubizarreta
Etxekoandrea (56 urte)

Goian daudenek tranpak baino ez dituzte egiten, beraz guk zein bide jarraituko dugu ba? Gainera zelan egiten duen, behekoak ere halaxe egingo du.



Segundo Uriarte
Dendaria (53 urte)

Nire ustez, zuzen aurkeztu eta gainera denok egin beharko genuke.




Pili Ezkurra
Etxekoandrea (36 urte)

Kontuak zuzen egin behar dira eta errenta ere zuzen aurkeztu. Jendeak egiten ditu tranpak, baina ez naiz horren aldekoa.

• ARTEA •

Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK
Laminak, Izpiluak,
Margoak

Ferrerias, 11 Tfnoa: 77 10 95
ARRASATE



EGVZKIGRAF

Grafikagintza. Tipografia.
Offset industrialia

Basabe bidea, A-2 ARETXABALETA Tfnoa: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit. 79 53 00
 Iguualitorioa 79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak) 79 39 00
 (emakumeak) 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua 79 90 11

Gurutze gorria
 Bergara 76 55 76

DYA
 Antzuola 76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak) 79 13 57
 (Txanda hartzeko) 77 03 46
 77 07 21
 Oñati 78 08 52
 Eskoriatza 79 98 58
 Aretxabaleta 79 74 58
 Aramaio (945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulanziaz 45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati 78 04 11
 Bergara 76 14 69
 Arrasate 79 14 39
 Aretxabaleta 79 10 52
 Eskoriatza 79 03 22

Ertzaintza
 Arrasate 79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea 79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile
 burua 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea .. 78 28 00

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua) 79 09 00
 Elektrizitatea (iberduero) 12 01 62
 Gasas 900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak 79 12 22
 P.E.S.A. 79 14 19

Hirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 79 81 57

Kontsumitzailearentzako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta
 Erabiltzaileen Elkarteak 79 87 77
 KIUB-OMIC 79 51 55

Monterongo liburutegia
 Monterraon 77 01 05

GOARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 15
 Egunez 22.00ak arte: Morales. San Andres.
 Gauez: Mozos. Pedro Deunaren.

Larunbata 16
 Egunez 22.00ak arte: Azkoaga. Ferrerias

Igandea 17
 Egunez 22.00ak arte: Español. Iturriotz.

Astelehena 18
 Egunez 22.00ak arte: Corcuera. Musakola.

Asteartea 19
 Egunez 22.00ak arte: Irizar. Erguin.


Asteazkena 20
 Egunez 22.00ak arte: Amezua. Santa Marina.

Osteguna 21
 Egunez 22.00ak arte: Ruiz. Magdalena.

15 OSTIRALA

ZINEA
 "Rebeldes al Swing". 7.30etan eta 10etan.

ERAKUSKETAREN HASIERA
 Arrasateko margo taldearen pittura erakusketa. Harresi aretoan. Arratsaldeko 6etatik 8etara. Apirilaren 24arte.



16 LARUNBATA



ZINEA
 "Los Tres Mosqueteros". 5etan, 7.30etan eta 10etan.

BILERA ETA KONTZENTRATZIOA
 Arrasateko Talde Antimilitaristak antolatuta. Goizeko 10.30etan bilera, CC.OOen lokalean. Eguerdiko 12etan kontzertazioa Sebero Altuben.

AITA MENNiko KULTUR EKINTZAK
 Corazón de Encinaren emanaldia. Arratsaldeko 4etan.

BATZARRA
 Arrasateko artziprestaldeko osasun eta liturgiako zenbait kideren bilera. Aretxabaletako Azatza auzoko etxean. Goizeko 10etatik aurrera.

ANTZERKIA
 In Fraganti taldearen: "Hala bazan ez bazan, sar dadila...". Sarrera 500 PTA, gazte txartelarekin 300 PTA. Gaueko 10.30etan, Amaia antzokian.



PERMAKULTURA IKASTAROA

Zer da? ekologia mailan sistema ongariak sortzeko diseinu sistema. Eskoriatzako Museo-eskolak antolatuta. Hasierako mintegia. Irakaslea, Steve Carr. Apirilaren 16an eta 17an. Larunbatean goizeko 10etatik ordu batera eta arratsaldeko 4etatik 6etara eta igandean, goizeko 10etatik ordu batera. Informazio gehiago nahi baduzu dei egin 714688 telefonora.

ENKUADERNAZIO IKASTAROA

Famili eta gizarte-heziketarako zentruak antolatuta. Arratsaldeko 6.30etatik 9etara. Izenematea 790459 telefonora deituta.

17 IGANDEA

ZINEA
 "Los Tres Mosqueteros". 5etan, 7.30etan eta 10etan.

HAUR ZINEA
 "Momo". Amaia antzokian, arratsaldeko 5etan. Sarrera 200 PTA.



YOGA ELKARTEAREN IKASTAROA

Arrasateko Yoga elkarteak bi ikastaro antolatu ditu. Lehena masaiari buruzkoa izango da eta astelehen eta asteazkenetan emango da, bi txandatan: goizez 9.30etatik 12etara eta arratsaldeko 6.30etatik 9etara. Ikastaro hori apirilaren 25ean hasiko da eta maiatzaren 25ean bukatu. Bigarrena, garapen pertsonalari buruzkoa izango da eta ostiraletan emango da, bi txandatan: goizez 9.45etan eta arratsaldeko 6.45etan. Garapenari buruzko ikastaroa apirilaren 22an hasiko da eta ekainaren 17an bukatu. Zapaldutako emozioak azalerazten, sentimenduak adierazten eta arazo pertsonalak konpontzen irakatsiko da. Izenematea 793576 telefonoan egin daiteke.

18 ASTELEHENA**ZINEA**

"Los Tres Mosqueteros". 7etan eta 9.30etan.

SAL TSA IKASTAROAK

Deba Garaiko Udal Kirol Zerbitzuek antolatuta. Emalea: Arnaldo Patterson. Plaza mugatuak. Prezioa: 2.000 PTA bazkideentzat eta 3.000 PTA gainontze-koentzat. Maiatzaren 3.astea, Arrasaten. Izenematea Musakolako kiroldegian. Tel: 790427.

ARGAZKI ERAKUSKETA

Gaia: Emakumea eta Kirola. Apirilaren 7tik 24ra. Monterron Kultur etxean. Ordutegia: egunero 6etatik 8etara; larunbat eta jaiegunetan, goizez 12etatik ordu bietara eta arratsaldeko 6etatik 8etara.

**GURASOENTZAT IKASTAROA**

Umezaintzak eta San Frantzisko Xabier ikastolak antolatuta. Gaia: 0-3 urte bitarteko haurren garapen psikologikoa, haur bat itxaroten dauden bikoteentzat eta orain dela gutxi haur bat izan dutenentzat. Apirilaren 18tik 21era. Monterrongo Batzar aretoan. Dohainik.

19 ASTEARTEA**ZINEA**

"Los Tres Mosqueteros". 7etan eta 9.30etan.

BERTSO AFARI GAZTEA

Apirilaren 23an. AEDko Gazte Mobidiek antolatuta. Bertsolariak: Estitxu Arozena, Iratxe Ibarra, Kepa Intxausti eta Amaia Telletxea. Prezioa 1.000 PTA. Izenematea AEDn apirilaren 22a baino lehen. Tlf: 795446.

SAN JUANAK PRESTATZEN
Arrasateko koadrila guztiei dei egiten zaie, aurtengo San Juanak prestatzeko bilera egingo dela apirilaren 22an, arratsaldeko 7etan, Monterrongo areto nagusian.

20 ASTEAZKENA**LITERATUR SAIOA**

Lubaki Banda taldearen: "Hegaberak Lubakietan" poesia, ipuin eta abarren errezitaldia. Eurek egindako lan desberdinak irakurriko dituzte. Arratsaldeko 7etan, Monterron Kultur Etxean. Udal Liburutegiak antolatuta.

21 OSTEGUNA**ZINEA**

"Cronos". Filme mexikar fantastikoa. Amaia zineman. 9.30etan. 300 PTA eta 250 PTA gazte txartelarekin.

HITZALDIA

"Denbora libre eta aisialdi kontzeptua". Arratsaldeko 4etatik 6etara. Famili eta gizarte-hezketarako zentruan.

**LUBAKI BANDA MONTERRONEN**

Harkaitz Cano, Lierni Ibagutxi, Ibon Iribarren, Xabier Ganzarain eta Asier Serrano izango dira literatur errezitala emango dutenak. Asteazkenean, Monterronen, arratsaldeko 7etan.

MANIFESTAZIORAKO AUTOBUSAK**SAN JUANAK PRESTATZEN**

Arrasateko koadrila guztiei dei egiten zaie, aurtengo San Juanak prestatzeko bilera egingo dela apirilaren 22an, arratsaldeko 7etan, Monterrongo areto nagusian.

Arrasateko Amnistiaren aldeko Batzordeak autobusak antolatu ditu apirilaren 23an Donostian egingo den manifestaziora joateko. Autobusa 3.30etan aterako da Arbolapetatik. Autobusez joateko txartela, Biona, Irati eta Etxerat tabernetan eros daitezke.

“Kooperatibistek Euskadiko Kutxari buruz duten irudian enpresa indartsu-moder-noaren eta aldiberean hurbileko edo beroaren edukinak islatzen dira, eta entitateari buruzko eskema erromantiko hauek apurtu egin dira.

Baina, argi! Ezer ere ez da estatiko eta behin beti-rakoa, aldiberean emozionalki hurbila eta indartsua den erakundea denez, dinamismo eta aktibitate handiagoa egotzen eta esijitzen zaizkio eta. Eta are gehiago ‘etxe-koekin’. (...)

Azken finean, gaur egungo bere jarrerari jarraituz, bazkide kooperatibistarekiko lotura (segurtasuna, garantia e.a.) indartu beharra dauka Euskadiko Kutxak, izan ere, ‘jatorri’ jakin batekiko koherentzian egoten baita identitatearen indarra”.

Marcel Cirera Strategic-eko zuzendariak **lanh**ide

“Arrasate aldetik etorri zaigu, azken urteotan, lekuan lekuko euskalgintzarako deiar berria, Arrasaten, Oñatin, beranduxeago Bergaran... nork bere ñabarduraz eta bere ahalegen neurrian, herri-mailako ekimen-molde berriak asmatu eta hezur-mamitu dituzte bertako euskaltzaleek. Goitik etorriko zaien laguntzaren zai egon gabe, elkarrengana biltzen ahalegindu dira herri horietan, lehenik eta behin, bertako euskaltzaleak. (...)

Lizardik argiro aitortu zuen behinola, Arrasatek piztu zuela hogeiko hamarkadan, 1926-27 inguruan, hegoalde-ko euskaltzaleen berpizkunde-aro berria. Diogun beraz, Lizardiren eskutik, Arrasatek abiatu zela 27ko belau-naldiaren euskalgintza-saioa. (...)

Eta, ARRASATE PResSEN erakarmenez edo nor bere baitariko komentzimenduz, herrirako aldizkaritxoa (ahal delarik astekaria) sortu gabe inor gutxi gelditzen ari da. Ilusioa eta lanerako gogoia, hori guztia dela medio, zabaldu eta indartu egin da —beharrik ere bazegoen eta— euskalgintzaren esparruan.

Mikel Zalbidek

JAKIN

Zer da multimediarren teknologia hau?

Multimedia, *media* asko dira. Etxean normalean erabiltzen dugun media bat telebista da, beste media bat irratia izan daiteke: irudia, ahotsa... Orain arte ohituta geunden ordenagailuak testurako bakarrik balio zuela, idazmakina baten antzera. Baina ordenagailuei, pixkanaka, pantailak kolorez bete zaizkie, eta ahalmena dute bideo-irudiak pantailartzeko ere, kapaz dira audioko lana egiteko. Eta medio guztiak ordenagailuan integratuta, horri esaten zaio multimedia. Horrek, erabiltzerakoan, mila aukera ematen ditu. Gaur egunean daukaguna da hori, baina gerora, pentsa, orain arte aginduak teklatuaren bidez ematen ditugula, baina audioa daukatenez, ordenagailuek gure ahotsa ondo ezagutzen ikasten dutenean, ahoz hitz egin ahal izango dugu.

Multimedia mundu honek aukera desberdinak ditu garatzeko, batzuk entretenimendurako, beste batzuk industriarako, eta tartean geratzen da hezkuntza mundua, eskola mundua. Orain, lehen urtean, merkatuan zer egiten den ikusiko dugu, European edo Estatu Batuetan, eta hortik, hori hemen nola egokitu daitekeen ikusi. Egongo diren bekarioak, diseinadore bat —pentsatu behar da hau irudia dela, eta ondo nola ematen ikusi behar da—, pedagogo bat, eta programadore bat izango dira. Hori da daukagun ideia, baina lehenengo sei hilabeteetan, ikusi egingo dugu zer egiten den, eta pixka bat ekipo hori egokitu egingo dugu. Hortik sortuko da gero, garatzeko dauden aukera guzti horietan zein garatuko dugun.



Mikel Usabiaga
Mankomunitate eta Irakasle Eskolako multimedia proiektuko zuzendaria



- Garbitasun orokorrak eta mantenimentua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

San Juan, 14 etxabea Tfnoa: 71 48 45 ESKORIATZA

TXOKO TABERNA

Eure berezitasunak pintxo eta mokau gozoak

Otalora, 7 Tinoa: 79 20 10 ARRASATE

ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak beirina eta kristalak akzesorioak


Olarte kalea, 47 behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

BLUSAK
OSAGARRIAK
POLTSAK

XAHO

ANGELA UNZUETA

Novecento eskusiban
Paola Frasconi, Liseta Paoletti, Dinastie



Erreskatea mendian

Koadrila arrasatear bat helikopteroz erreskatatu behar izan zuen jendarmeria frantziarrak Pirinioetan. Vignemale mendira joan ziren zazpi lagunak, martxoaren 30ean, artean eguraldi onaz. 2.600 metrora zegoen babeslekura iritsi eta gutxira, edurra hasi zuen, eta lau egun egon ziren han kieto, beste mendizale batzuekin. Beherakoan, elurretan ia aurrera egin ezinik, azkenean helikopteroarekin ateratu zituzten. Bestetik, Pirinioetako beste aldean, beste bi mendizale arrasatearrek barranko batera eroritako neska bat erreskatatu zuten.

Doke txapelketa

SUDC elkartekoek eta udal zinegotziek elkarren arteko doke txapelketa tradizionala jokatu zuten ostiral santu egunez. Jokoa 1988an berreskuratu zenetik hona beti irabazi zuten SUDCekoek, baina aurten korporazioa izan da nagusi.

Intsumiso baten atxiloketa

Julen Larrinaga intsumi-



Itzuliaren hasiera

Euskal Herriko Txirrindulari Itzuliko antolatzaileek (bai Itzuliarenek zein Arrasateko taldeak) oso balorazio baikorra egin dute Arrasaten antolatutako irteeraz. Guztiak pentsatu bezala irten zuen, eta kale egin zuen faktore bakarra eguraldia izan zen. Datu ekonomikoen artean, 4,5 milioi PTako aurrekontuan babesleekin beteta geratu zen, eta azkenean badirudi superabit txiki bat ere egon litekeela. Diru hori Txirrindulari Elkarteak antolatzen dituen karreretarako eta Abaroa egoitzari opari bat egiteko erabiliko da. Ezin utzi aipatzeke, bestalde, Arrasate Telebistak prestatutako programazio berezia eta ARRASATE PRESSEN ale berezia.

so atxabaltarra atxilotu eta egun batez espetxeratu egin zuten, epaiketa egin ziezaiten. Aste Santua baino lehentxeago, martxoaren 29an, atxilotu egin zuen Ertzaintzak bere lantokian, eta Martuteneko kartzelara eroan zuten, bere garaian jarrita zeukan epaiketara

azaldu ez zelako. Biharamunean, 30ean, Donostiako auzitegira eroan zuten, epaiketa egin eta ondoren libre geratu zen, epaia ezagutu zain.

Lapurreta

Joan den ostiralean, bi

lagun (bergarar bat eta balmasedar bat) atxilotu zituen Ertzaintzak Arrasaten ustez lapurretan egiteagatik. Gasolindegia bateko tabakomakinan ostu zuten atxilotuek, goizaldeko 3ak aldera.

JAIOTZAK

- Samuel Garcia Penas. Martxoaren 16an.
- Haizea Fernandez Loidi. 21ean.
- Danel Pando Markina. 17an.
- Asier Urzelai Arregi. 17an.
- Xabier Arrizabalaga Altuna. 22an.
- Ainhoa Errasti Ortiz de Guzman. 23an.
- Lorena Gallego Sopo. 26an.
- Alex Lorenzo Fernandez. 30ean.
- Aimar Arrieta Biain. 28an.
- Haritz Aguiriano Perez. 30ean.

EZKONTZAK

- Karmelo Uribarren Munitxa & M^a Lourdes Bengoa Azkoaga. Martxoaren 25ean. Zibilez.
- Jose M^a Sagasta Larrañaga & M^a Concepcion Beltran de Guevara Martinez. Apirilaren 9an. Zibilez.

HILDAKOAK

- Felipa Garro Arriola. Martxoaren 26an. 91 urte.
- Franziska Lizarralde Elorriaga. 25ean. 87 urte.
- Jose Elorza Azkarate. Apirilaren 4ean. 84 urte.
- Victorino del Campo Izquierdo. 4ean. 81 urte.
- Luminosa Olivera Benito. 3an. 82 urte.
- Juan Jose Alzuagarai Goikoetxea. 7an. 58 urte.
- M^a Antonia Etxebarria Zuloaga. 7an. 75 urte.


FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN
ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

EDERTU
Ileapaindegia



Solarium berria
10 saio 10.000 PTA
eta 2 oparitzen dizkizugu

Foruen enparantza Tfnoa: 79 04 28



DOMI KORTA*

Saminetik esperantzara... maitasunez

Nire esperientzia kontuta nahi nizueke, nire egoera berean zaudeteno lagunduko dizuelakoan.

Goizeko bostak dira eta oroitzenak bereziki indartsuak dira gaur. Urteurrena da horren arrazoia. Bai, dagoeneko bost urte dira eta denok hemen gaude, baita Bera ere, baita bereziki maitaduzun seme hori ere, besteak baina ahulagoa dirudien hori ere.

Gogoratzea... Oso gogorra izan zen astebeteko azterketa eta analisisen ondoren despatxura dei egin zidaten goiz hura:

— *Zure semeak zurekin hitz egiteko eskatu digu. Zurekin bakarrik, eta batez ere, aitari ezer ez esateko.*

Nire hurrengo pentsamendua... Jauna, zein gogorra!

— *Beno, analisi denak eginda daude, eta zure semeak hala eskatuta, V.I.H.-aren antigorputzen froga ere egin diogu eta positibo eman du. Gaisotasuna garatzen ari dela uste dugu: HIE-Sa.*

... azalpenekin jarraitu zuen baina nik ez nuen ezer entzuten eta ez nuen ezer ulertzen. Ene, Jainkoa! Eta zela bizi behar dut nik orain "honekin"?

— *Begira, ez zara zu gaisotasunarekin bizi behar duena. Izatekotan ere, zure semeak ika-*

si beharko du gaisotasunarekin bizi izaten.

Ez zuen denbora askorik, baina lana ugari bai, eta belarrondoko handi harekin utzi ninduen. Zoritxarreko sentitzen nintzen, ezin nuen pentsatu, eta pentsatzen nuena ez zen zentzuzkoa. Ezin nituen pentsamenduak josi eta ihes egiten zidaten gainera...

Semea beste batekin utzi, autoa hartu eta urtegiara joan nintzen. Ez dakit nola, ez nuen ezer ikusten eta. Ez dut gogoan zelako eguraldia egiten zuen ere, baina ni hotzak nengoen eta oso beltza zirudien denak. Bazirudien ezerk ere ez zuela zentzurik. Karraxi egin nuen. Garraxi eta negar, eta dena amaitu zenean, bi orduren buruan, pentsatzen hasi nintzen astiro, oso astiro... badut seme-alaba gehiago, eurekin hitz egin beharra dago, aurrera irten behar dugu, ez zait hilko, ez du hil behar, irtengo du honetatik, eta buelta ematen diogunean elkartzurik aurkituko gaitu laguntzeko eta krisi honetatik irteteko.

Nire samina eta pentsamenduak honelakoak badira... zer pentsatzen ote du berak? Erite-xera joan behar dut, berarengandik hurbil egon behar dut,

badakit zelakoa den eta ez dit ezer esango, baina bere minaren eta segurtasunik ezaren zati bat nik ere sentituko dut. HIESa delako honen aurrean... eta gauza txarra ere, erdibana arinagoa izan ohi da.

Aurrera!

Burruka, burruka asko eta irten genuen handik. Semea etxean dut; Jon Salaberri ezagutu nuen eta zerbait egin behar genuela pentsatu genuen, HIE-Sari buruz asko genuen ikasteko, eta gero, sendatzea ez baina, prebentzioa erakutsi.

Eta horretxek atera ninduen zulentik, ezer egin ezinaren etsipenetik atera ninduen, gaisotasunaren aurrean ezintasuna sentituzetik. Lanean hasi ginen, HIES-Ekimena taldea sortu genuen, jende zoragarria ezagutu nuen, eta entzun egiten diet, entzun egiten didate, hitzaldiak ematen ditugu, informazioa ematen dugu...

HIESa gerarazi egin nahi dugu!

Talde guztia eskertu nahi nuke eta Jon bereziki saltsa guzti honetan sartu ninduelako, gaisotasunari buruz dakigun guztia eta geure esperientzia pertsonala kontatzeko deitzen digutenei, eta irakurtzen ari zaren horri ere eskerrak ematen dizkizut honaino iritsi zarelako.

Eta orain pentsa ezazu: Familiarteko eta lagunena bat gaisorik baduzu eta zer egin ez badakizu, zatorz gugana, gaisorik bakarrik, triste, bazterturik eta mesprextaturik egon ez dadin gaude hemen. Eta zu ere baligarririk sentituko zara familiaren aurrean, garrantzitsu izango zara zeure buruarentzat eta besteentzat, asko ikasiko duzu, eguneroko burrukan egin behar izateaz nekatu ere egingo zara, baina pakean izango zara, ondo egindako gauzek, maitasunez eta borondate onez egindako gauzek ematen duten pakeaz.

Zain gauzkazu. Zatorz bila!

* **AMA BAT, HIES-EKIMENA**

USTEAK USTE

EGOERA GORRI GORRIYA

Kanpoan ibilitakoan etxerako modukoak ikasten direla eta etxean ere kanpokoan ezartzeko moduak badirela esan ohi da. Sevillan lehen aldiz izan nintzenez adina harritu nau oraingoan ere, han ikusi dudana ohitura batek. Trafikoarekin du zerikusia. Hiri hartan noizbait izan denak badaki han ez dagoela OTarik, baina nekeza dela aparkatzeagatik "zerga" ordaindu barik alde egitea. "Gorri-llas" (gorriyas) deitzen diete, norberaren eskubide denagatik kobratu egiten dutelako edo buruan izaten duten txapelarengatik, ez dakit ondo. Kontua da, kale kalean eta norberak kostata aurkitutako aparkalekuan autoa uzterakoan, kiñu bat egin, eta eskua luzatzen dutela. Eta jendeak eman egiten du, zer gerta ere. Bertakoak hartara jarrita daude eta apropos horretarako txanponak eramaten dituzte autoan; borondatezko tasa horrek ere "ipezearekin" batera egin ei du gora. Sevillarrak etsipenez begiratzen dio bitxikeria horri, hemen oraindik horrelakorik ez dela asmatu sinistu ezinik. Etxeratu orduko, "gorriyak" ikusi ditut Arrasaten aparkatu ezinik, hau da, mortalak egin behar izan ditudala. Eta "gorriyak" etorri zaizkit burura. Ez da horrenbesterako, esango didazu, baina hemen ere bada irtenbideren baten beharra, pikareska esnatu aurretik.


ARANTZAZU LOIDI

.....
**ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA**
.....

BAZAR
TOKI ON


J. Carlos Guerra, 1 Tfnoa: 79 91 64 ARRASATE

Elektroinjekzio
Zerbitzua



ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE



Ulgor, 1958: kooperatiben sorrera izan da Arrasateko industriaren historiaren une garrantzitsuetako bat.

Museo industrial egiteko proiektua garatuta dago

Arrasateko museo industrial bat izan den proiektu bat garatu du egitasmo horretarako udalak sei hilabeterako kontratatutako bekadun batek, Isabel Aramendiak. Proiektuak jarraipena izango ote duen edo ez, aurrekontuen baitan dago, hiru faseko plan bat aurkeztu baitio Isabel Aramendiak udalari. Udal kultura eta pertsonal batzordeek onetsi egin dute plana, baina aurrekontuak dira koxka.

Museo honen helburua Arrasateko etnografia, historia eta industria ondarea gordetzea lirateke, ikusle eta ikasleen partehartzea bultzatzeko kultur zentro bat sortuz. Industria eta langintzen garapena hiru arotan aztertuko litzuzke museoak: 1850 arte, 1850-1950 tartea, eta 1950tik aurrera.

Museoa abian jartzeko planaren lehen fasea aurki hasi beharko litzateke, hastekotan. Inbentario zabal bat egitea, eta galtzear dauden materialak jasotzea. Lehen fase hau urte amaieran egingo litzatekeen erakusketa batek itxiko luke. Inbentarioa egin eta erakus-

keta antolatzeko behar den 2 milioi PTako partida da plangintzaren giltza. Aurrekontuak eztabaida fasean daude udaletxean, eta apiril amaierarako zehaztuko dituzte.

Planaren bigarren fasea, museoaren egotzaren aukeraketaz, kostoen kalkuluz eta proiektu teknikoaz osatuko litzateke. 1995etik 97ra garatuko litzateke, eta gauzak bideratu ezker, 1997ko abenduan inauguratu liteke museoak.

Kultur-zentro honek museo guztien funtzioa izango luke: preserbazioa, kontserbazioa, ikerketa eta zabalkundea. Historian zehar, ekonomia nahiz gizartean lanbideek izandako eragina erakutsiko luke museoak, eta urteetan zehar arrasatearren bizimoduak ezagututako aldaketak agerian jarriko litzuzke.

Inguru osora zabalik egongo litzateke kultur-etxe hau, bereziki Euskal Herri osoko ikasleen bisitak jasotzeko. Deba Garaian turismoa garatzeko dauden egitasmoekin bat eginik, puntu erakargarria izango litzateke museo industrial hau.

Baserrietako obrak

Musakola auzoan berriztatutako Egi-Haundi baserriak ez du okupaziorako baimenik lortu, hirigintzako baldintza guztiak betetzeke daudelako. Beste baserri batek, ordea, lizentzia lortu du, baina behera botatzeko: Muxibar Azpikua baserria da, Mugarritten dagoena. San Andres, Bedoñako bideko Solozar baserriaren inguruan ere badago berririk. Hondatuta, oso egoera kaskarrean dago baserri hori, eta hala ere, jendea bizi da alokairuan, baserria Altuna y Uria enpresarena baita jabetzaz. Duela aste batzuk, udalak baserria konpontzeko eskatuzion enpresari, baina ezer egokirik egin ez dutenez, berriro esijitu zaie baserria konpontzea.

Panteoi-jabeen errekurtsioa


Aldaiko panteoietako jabeen elkarteak Bilboko abokatu batengana jo du, aurreko abokatu arrasatearrak ez errekurritzeko gomendatu ostean. Familia gehienek ez etsitzea erabaki dute, eta abokatu berriaren bidez, udaletxean erreklamazioa aurkeztu dute plenoak hartutako erabakiaren aurka. Udalak Aldaiko enterramenduak geldiaraztea erabaki zuen, eta orain plenoak berriro erabaki beharko du erreklamazioaren inguruan.

ESLU
ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88
ARRASATE



Bizkaia Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24



Eskoriatzako Irakasle Eskolan aspalditik ari dira informatikaren alorrean lanean.

Multimedia alorrean ikertzeko bekak martxan

Deba Garaiko Mankomunitateak eta Eskoriatzako Irakasle Eskolak multimedia proiektuak garatzeko hitzarmen bat sinatu dute, Foru Aldundiaren babesarekin. Datu, irudi eta soinuak medio bakarrean biltzeko informatika alorra da multimedia, eta etorkizun handiko alor teknologikoa da. CD-ROM soportean, edo laster garatuko diren kable sistema berrien bidez hedatuko den teknika honek aplikazio ugari ditu, hezkuntza, komunikabide edo ekonomian.

Mankomunitateak ez du Deba Garaia teknologia hauetarik urrun zintzilik geratzerik nahi, eta horregatik egin da hitzarmen

hau. Irakasle Eskolaren bidez, hiru bekadun kontratatuko dituzte, formazio azkar eta sakona eskainiko zaie lehenbizi, eta ondoren, bost enpresa konkretutarako beste horrenbeste multimedia-lan praktiko egingo dituzte.

Mankomunitateko garapen ekonomikorako agentziak bultzatu du proiektu hau. Agentzia honek urtebete dihardu lanean, eta bere helburu nagusiak formakuntza, autoenplegua eta egitura ekonomikoaren modernotze eta zabalkundea bultzatzea dira. Azken helburu honekin uztartzen da multimediai garatzeko egitasmoa.

Auto jabearen erreklamazioa

Auto baten jabeak indemnizazioa eskatu du ustez Olarte kalean gaizki jarritako pibote batek gurpila apurtu ziolako. Gero eta ugariagoak bihurtzen ari dira tankera honetako erreklamazioak, baina kasu honetan udalak ez du onartu kalte-ordaina pagatzea, gurpil-zulaketa Olarten edo beste inon izan den demostratuta ez omen dagoelako.

Tasetarako laguntzak

Urtero bezala, jubilatuta eta langabezia daudenez udal-tasak (ura eta zaborrarena, adibidez) ordaintzeko dirulaguntza eskuratzeko epea zabalik dago. Eskariak egiteko, txanda eskatu behar da udaletxeko ongizate sailean. Epea maiatzaren 20an amaituko da.

Aurrekontuak

Udal aurrekontuak eztabaida fasean daude oraindik, baina nahiko bideratuta dago prozesua. Seguruena apirilaren 29an egingo den udalbatzan onartuko dituzte.



GRONDO

elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoa
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa

Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

ARRASATE



Emakume taldeen aspaldiko eskaera da babesetxea. Irudian, martxoaren 8ko manifestazioa.

Babesetxearen helbidea ez da ezagutzera emango

Martxoko udal plenoan onartu zen Arrasaten babesetxea irekitzea, eta horretarako araudia prest dagoen arren, aurrekontuetan zehaztu behar da dirua, pisua eskuratu eta egokitzeko. Nolanahi ere, babesetxearen helbidea ez da ezagutzera emango, segurtasun arrazoiengatik. Herriko emakume taldeek emakumeentzako babesetxea eskatu zuten bere garaian, baina udalak azkenean onartu duenak izaera zabalagoa izango du: premian daudenentzat izango da, ez emakumezkoentzat bakarrik. Bereziki tratu txarrak jasateagatik, edo jasateko arriskuan egotea-

gatik, famili girotik irten behar duten emakumeentzat dago pentsatuta babesetxea.


Inori babesa eskaintzeko, eskabidea aurkeztu behar da udaletxera, ongizate sailak baloratu egingo du premia, eta gobernu batzordeak onetsi. Larrialdi kasuetan, udaltzaingoak erabaki ahal izango du etxean sarrera eskaintzea. Bete behar diren baldintzak, Arrasateko erroldan egotea eta beste inon babesik ez izatea dira. Edozein modutan, etxebizitzan eskainitako babesa behin-behinekoa izango da, inola ere ez hiru hila-bete baino luzeagoa.

Roneoko zubiko kartela

Gipuzkoako Diputazioaren ikuspegitik, Roneoko zubi metalikoan jarritako kartela, Arrasate dioena, legez kanpoko da, eta kendu egin behar da. Udalaren iritziz, logikarik gabeko erabakia da hori. Hala ere, Diputazioak ez du arrazoirik ametitzen antza, eta horren ondorioz, udalak, bere aldetik, Foru Aldundiak dauzkan obligazioak gogoratu dizkio Foru erakundeari. Izan ere, Udalak Roneoko zubi probisonala eraikitzea, Foru Aldundiak saihebideta egiteagatik zegokion zubi finkoa egin ez duelako izan da.

Baserritarren saltokia plazan

Udalak, saltoki finko eta itxi bat (harategien ondoko bat) konkurtsora aterako dela jakinarazi dio Ikutixo baserriko Iturbe familiari, nahi izan ezker, lehiaketa publikora aurkez daitezten. Ikutixokoek ez daukate baimenik baserrikoak ez diren produktuak saltzeko, eta egoera hori erregulatze-ko eskaera zuzendu zioten udalari duela zenbait aste.



Gipuzkoako Espezialitate Odontologikoetarako Zentrua, E.M.

Centro de Especialidades Odontológicas de Guipuzcoa, S.L.

Espezialitate guztiak

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia Finkoak
- Protesiak
- Endodontzia
- Umeak, gauzaeztanduak, etab...

Zure hartz-osasuna zaintzen laguntzen dizugu.

BERGARAKO KLINIKA

Simón Arrieta, 3-2 B
Tf. (943) 76 38 54

ARRASATEKO KLINIKA

Iturriotz, 7 behea
Tf. (943) 79 73 88

ZUMARRAGAKO KLINIKA

Soraluze, 1-1 ezk.
Tf. (943) 72 46 47



Jo Ta Sueko hamasei bat neska-mutil, Lizarrrara joan ziren Aste Santuko oporrak pasatzera. Denetik egiteko aukera izan zute: piraguismoa, rafting-gehiago bilatu zuten. Itxura denez, neska batzuk bikotea aurkitu zuten eta horregatik, berriz ere Lizarrara joateko desiatzen daude.

25 gazte arrasatear Europan zehar ibili ziren Aste Santuan. Paris, Amsterdam, Brujas, Eurodisney eta beste hainbat toki ezagutu zituzten. Bidaian ederto

pasa zuten baina eurek esan bezela, onena autobusaren gidaria izan zen. Itxura denez gidari amezketarrak, **Konstantek**, pasietzia galanta izan zuen.




San Frantzisko elizan kanpai berrien soinua entzuten hasi da.

Lehenagoak zaharkituta zaudenez, kendu egin zituzten eta Santanderretik ekarritako hiru berri jarri dituzte. Frantziskotarrek, kanpai handienari **Arantzazuko Ama** izena jarri diote, erdikoari **San Frantzisko** eta txikienari, **San Antonio**.



Joan zen ostegunean, Mari Jose Gil kirolariari arrasatearrari omenaldi txiki bat egin zion Udalak. Mari Jose, Munduko maratoi txapelketan irabazle izan zen bere kategorian. Alkateak oroigarria eman zion korrikalariari eta honek neskak animatu zituen zapatilak jantzi eta korrika egitera.



**ZARRAOA
EL ARCA DE NOE**

- Estetika kabinetea
- Larruzko artikuluak
- Bitxitegia
- Jostailuak

Kanpatorpea, 4
Tfnoa: 79 12 19 ARRASATE

“PAL”

**burdindegia,
brikolage
eta tresneria**

Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99

HIES EKIMENA

**Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.**

Tfnoa: 79 26 99

IZEN PROPIOAK



Asmoa hiru handixetara igotzea zen, baina abentura hori egitera animatu ziren 60 gogoratu beharri ere ez dago Aste Santuetan lagunek, Gatzagako aterpetxean pasatu zelako eguraldia egin zuen. Horregatik, nahiz zituzten gainontzeko egunak. Hori bai, ondo eta lehenengo egunean Aizgorrira igo, baino hobeto pasa ei zuten.

Uribarri-Erguin auzoan ziren auzoko jubilatuzirek bizi diren 90 urtetik etxera gerturatu, hiru gorako 16 lagun baino ez ziren joan. omendu zituzten joan Horregatik, besteei, zen asteazkenean. opari bana eraman Hala ere, guztiak ez zitzaizkien etxera.



La Merced ikastetxeko **Marta Casado, Victor Dávila, Monica Diez** eta **Jokin Espinosa** ikasleek, Oncek antolatutako lehiaketa irabazi zuten. Ezinduen integrazioa bultzatzea helburu zuen irratsaioa egin behar zuten, eta ikasle hauena kalitate onekoa zenez, eurei eman diete saria. Asteartean Arrasatera etorri zen Onceko ordezkaria bakoitzari erloju bana ematera.

● **Itxaro Zubillaga**, 24 urte, ARKOko kazetaria izango da aurrerantzean. Itxaro atxabaltarra da eta kazetaritza ikasi zuen Leioan. Itxaro, Mondragol saioaren aurkezlea da eta Aretxagazetako kazetaria izan da orain arte.

● **Luis Fernandez**, 27 urte, orain arte Arrasate Presseko kazetaria izan dena, Argia astekarian hasiko da lanean. Luis eibartarra da eta kazetaritzan lizentziatua. Aurrez Euskaldunon Egunkarian eta Argian bertan lan egin izan du.

● Ibai-Arteko zuzendaritza batzordea osotuko duten partaide berriak honako hauek izango dira: **Aitor Onaindia, Eugenio Uribarren, Karmele Iparragirre, Miren Gallastegi, Ezequiel Gomez, Juanjo Herrero** eta **Rosario Zeziaga**.

IBARRA

Garajea S.L.



**EBRO
NISSAN**

Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuademazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreprodukzioa
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62

ITSASKI

ARRANDEGIA

Arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94

Mendi taberna

MENDI DA ZURE ETXEA

Maalako Arrabala, 4
Tfnoa: 79 20 54

LORAMENDI KIROLAK



**EURIAREKIN
JANTZI ZAITEZ
EGOKI**

**LORAMENDIN AURKITUKO
DUZU EURITARAKO
JANTZI ETA OINETAKO
EROSOAK**

San Andres auzoa Tfnoa: 79 97 24



KONTZERTUAK

Aterpe Kafetegian

Apirilaren 22an, ostirala, Gaueko 11an

“BUCAL SEEL”

Apirilaren 28an, osteguna, Gaueko 9,30etan

“DANIEL PEREZ TRIO”

Futbito Txapelketa ZALDIBARRREN



Gero eta ikusgarriago

Bi partidu baino ez dira falta Zaldibarko bigarren fasea amaitzeko, eta gauzak nahiko argi daude dagoeneko. Bi taldek ziurtatuta daukate sailkapena (Pepelus eta Argi Ibili), eta beste mordo bat deskartatuta dago. Asteburu honetatik aurrera, partidu gehienak erabakiorrak izango dira, eta beraz, joko ikusgarriaz gozatzeko aukera izango duzue Zaldibarrera hurbiltzen zaretenok. Aldi berean, an-

tolatzaileek erabaki berri dute zein izango den hurrengo fasearen jokoaren modua, eta beste ligilatxo bat egitea erabaki dute. Ondoren, finalerdiak (partidu bakarrera, ez bitara, iaz egin zen bezala) eta finala azkenik, maiatzaren azken asteburuan, 28an. Aldiz, maiatzean eta ekainean luzatuko da beste txapelketa, Uribe Auzokoa, futbitoko gure "bigarren maila" partikularra.

.....
URRATS

AHOLKULARITZA

CARIBAL, 3
Tfnoa: 79 87 74
ARRASATE

**Monte
taberna**

Maalako errabala, 11
Tfnoa: 79 20 56

**Felipe
Arrizabalaga**
aroztegia



Legarre pabiloia, ARRASATE Tfnoa: 79 22 76

Zaldibarko Txapelketa

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
PEPELUS	5	5	0	0	23	8	10
ARLUTZ	5	3	1	1	20	17	7
LOS HEREDIA	5	3	0	2	20	18	6
FRANCISCANERR	5	2	1	2	26	21	5
POTROAK LORA.	5	0	4	1	16	17	4
REVOLUTION ROCK	5	2	0	3	20	27	4
NABARROS	5	1	1	3	18	22	3
ZOTZ	5	0	1	4	17	30	1

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
MIKELOS	5	3	2	0	19	13	8
FOSFOROS	5	4	0	1	26	18	8
ZULUS	5	3	0	2	21	14	6
ANBOTOSTE KT	5	3	0	2	16	15	6
BUKANAK	5	2	0	3	18	19	4
UGLYS TXINATO	5	1	1	3	23	26	3
JEY JULIWER	5	1	1	3	11	15	3
SOKOAKOAK	5	0	2	3	9	23	2

C taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ARGI IBILI	5	5	0	0	43	15	10
IRATI STS	5	4	0	1	23	17	8
SUM. UGARTE	5	3	0	2	30	17	6
ARR. KIROLAK	5	3	0	2	22	18	6
MOTZ	5	2	0	3	21	22	4
TOVARITX	5	2	0	3	18	25	4
TRONKOTEAK	5	0	1	4	14	34	1
KAKAJAURI	5	0	1	4	14	37	1

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
TRIKITI	5	4	1	0	23	9	9
ZULOAK	5	3	1	1	15	16	7
CARBUROS	5	2	2	1	15	13	6
LEINTZ GARAGAR.	5	3	0	2	24	13	6
DANOK LAGUN	5	2	0	3	14	19	4
TUTTIFRUTI	5	1	2	2	13	15	4
ARR. KRISTALDEGIA	5	1	1	3	17	25	3
AC SURCOS	5	0	1	4	16	27	1


Uribe auzoa Txapelketa

A taldea	
Corinto Taberna	8
Semen Up	7
Borrokn Roll	6
Lo + X	6
Ola Tailerrak	6
Elisabeth	3
Kabiru	2
Altza Porru	2
Trotabares	0
Lore Gazteak	0
No Comment	0

B taldea	
Solano 7 Mares	7
Bodisca	7
Nuevo Taberna	6
Ganbelas	5
Yomai	4
Sorgol	3
Berango Sukald.	3
Lokis	2
Bayern Lenitz	2
Ke Oxtias	1
Atxanta ke te...	0

D taldea	
Lautherbrunnen	8
Stockers	7
Equs	6
Belo eta Txapi	4
Hirei	4
Top Hits	3
Los Insociales	3
Ezkiñako	2
Estrella Floja	2
Etxe Mobiliario	1
Mobil. Arenaza	0

E taldea	
Los Dimy	8
Txeenex	6
Fancy Bois	6
Kirten Tropel	5
Beti Gazte	4
Jo ta Akabau	4
Los Dalton	3
Excav. Lete	2
Los Garimbas	2
Auf dem Koffer	0
Borrokn Promes.	0



Doctor Bañez, 1 behean, San Andres auzoan
 ASTELEHENETIK OSTRALERA ARTE
 Goizeko 9etatik 1a arte
 TFNOA: 79 19 21


ARGÍ PLASTIC

• PVC eta Aluminioan egindako leihoak, atek, manparak...
 • Lantegitik zure etxera zuzenean

Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik

Erakusketa berria:
 Kanpatorrea, 2
 (Parrokia ondoan)
 ETORRI IKUSTERA!

Tailerra eta Bulegoa: Axeri, 3 Tfnoak: 77 11 30 / 79 11 35



MIKEL ELORZA ETXEBARRIA
 25. 452 zembakidun Aseguru Artekarria
 Arrisku gertean
 S.Z.O. F-95 erregistro Zka.

Boulevard, 11 5º-A
 Tfnoa: 43 04 14
 Fax: 43 11 01
 20.003 DONOSTIA

Erdiko kale, 4 Behea
 Tfnoa-Fax: 77 13 09
 20.500 ARRASATE

Garaiko perretxikoak urte
guztian zehar!!

RUTH
GATZAGA

Olarte kantoia. Tfnoa: 79 59 57
 ARRASATE

- Eguneko menua
- Asteburuetan menu berezia
- Paregabeko karta





Asteburu honetarako dauden partiduen artean, honako hauek azpimarratuko ditugu: Danok Lagun - Lenitz Garagardotegia, Zuloak - Arrasate Kristaldegia, Mikelos - Bukanak, Sum. Ugarte - Arrasate Kirolak eta Zulus - Anbotoste. Adi, batez ere, azken bi neurketei, galtzaileek aukera barik geratuko dira eta.

BELARRIRA

◆ **Inpugnazio baztertua.** Oporrak baino lehena-go genion bezala, Lenitz Garagardotegiak aurkeztutako inpugnazioak aukera gutxi zuen aurrera egiteko, eta halaxe gertatu zen: antolatzaileek baztertu egin zuten. Trikiti - Lenitz (2-1) partiduan ustezko alineazio ilegalak izan zen inpugnazioaren motiboa.

◆ **Nahigabe larria.** Motz taldeko jokalaria batek lesio larria izan du asteburu honetan jokaturako partidua batean. Zorua bustia zegoen eta halako batean, aurkari bat labandu egin zen jokoan eta Motzekoa hankan indarrez jo zuen nahigabe batean. Peronea eta ligamentuak hautsi zaizkio, eta ez da broma makala.

◆ **Uribe Auzoa.** Iturripeko txapelketa gorabehera barik doa aurrera. Saikape-netan, A taldeko lidergoan dagoen Corinto Taberna taldearen papera nabarmendu behar, Zaldibarko lehen fasean hain kaskar ibili ostean, orain dotore ari dira eta.

EMAITZAK ZALDIBAR

A TALDEA

Los Heredia 2 - Pepelus 4
Potroak Lorategi 4 - Franciscanerr 4
Arlutz 5 - Revolution Rock 4
Nabarros 6 - Zotz 3

B TALDEA

Zulus 2 - Jey Juliwer 4
Fosforos 4 - Bukanak 3
Mikelos 1 - Sokoakoak 1
Uglys Txinato 1 - Anbotoste KT 5

C TALDEA

Argi Ibili 14 - Kakajauri 5
Sumistros Ugarte 5 - Motz 3
Tovarixt 2 - Arrasate Kirolak 6
Irti STS 5 - Tronkoteak 4

D TALDEA

Trikiti 5 - Carburos 1
Zuloak 3 - Lenitz Garagardotegia 7
Danok Lagun 2 - Arrasate Kristaldegia 5
Tuttifrutti 3 - AC Surcos 3

EMAITZAK URIBE AUZOA

A TALDEA

Trotabares 4 - Altza Porru 5
Ola Tailerrak 9 - Lore Gazteak 6
Corinto Taberna 8 - No Comment 3
Semen Up 5 - Elisabeth 5
Kabiru 2 - Lo + X 4

B TALDEA

Bodisca 6 - Lokis 4
Atxanta ke te merece 4 - Ganbelas 7
Berango Sukaldeak 4 - Yomai 11
Solano 7 Mares 9 - Bayern Lenitz 2
Ke Oxtias 5 - Nuevo Taberna 6

D TALDEA

Equs 9 - Hirei 2
Estrella Floja 4 - Top Hits 0
Lautherbrunnen 6 - Los Insoables 4
Etxe Mobiliario 2 - Stockers 8
Belo eta Txapi 3 - Mobiliario Arenaza 2

E TALDEA

Los Dimy 4 - Auf dem Koffer 2
Fancy Bois 4 - Los Dalton 3
Jo ta Akabau 13 - Borrock Promesas 3
Kirten Tropol 2 - Txeyenex 0
Beti Gazte 4 - Excavaciones Lete 3

Agricentro Otxoa



- **Nekazaritza:** haziak, ongarriak, produktu agrokimikoak etb.
- **Abelazkuntza:** pentsuak, botikak, aberentzako materiala, baserrirako tresneria etb.
- **Lorazaintzako produktuak:** ureztatzea, keramika, ongarriak, etb...
- **Etxeko animalientzako janariak:** (txakur, katu, txori eta arraintzakoak)

Musakolako Industrialdea, z/g. Tfnoa: 79 86 90 ARRASATE

ASTEBURU HONETAN

ZALDIBAR

Larunbata 16

Zaldibar

- 08.50 Fosforos - Sokoakoak
- 10.00 Tovarixtx - Motz
- 11.00 Los Heredia - Zotz
- 12.00 Suministros Ugarte - Arrasate Kirolak
- 13.00 Zulus - Anbotoste KT
- 14.00 Argi Ibili - Tronkoteak
- 15.00 Danok Lagun - Lenitz Garagardotegia
- 16.00 Potroak Lorategi - Revolution Rock
- 17.00 Uglys Txinato - Jey Juliwier
- 18.00 TuttiFruti - Carburros
- 19.00 Arlutz - Franciscanerr

Igandea 17

Zaldibar

- 08.50 Zuloak - Arrasate Kristaldegia
- 10.00 Mikelos - Bukanak
- 11.00 Nabarros - Pepelus
- 12.00 Irati STS - Kakajauri
- 13.00 Trikiti - AC Surcos

URIBE AUZOA

Larunbata 16

Iturripe A

- 09.00 Fancy Bois - Borrock Promesas
- 10.00 Beti Gazte - Auf dem Koffer
- 13.00 Bodisca - Ganbelas
- 14.00 Jo ta Akabau - Txeyenex
- 15.00 Estrella Floja - Los Insociales
- 16.00 Ke Oxtias - Lokis
- 17.00 Los Garimbos - Excavaciones Lete
- 18.00 Trotabares - Lore Gazteak
- 19.00 Corinto Taberna - Elisabeth

Iturripe B

- 09.00 Equis - Top Hits
- 10.00 Berango Sukaldeak - Bayern Lenitz
- 11.00 Borrockn Roll - Lo + X
- 12.00 Lautherbrunnen - Stockers
- 13.00 Los Dimy - Los Dalton
- 14.00 Atxanta ke te merece - Yomai
- 15.00 Ola Tailerrak - No Comment
- 16.00 Belo eta Txapi - Hirei
- 17.00 Kabiru - Altza Porru
- 18.00 Ezkiñako Hontzak - Mobiliario Arenaza
- 19.00 Sorgol - Nuevo Taberna



“Final-Four” sistema hurrengo faserako

Aste honetan erabaki du Zaldibarko txapelketako antolakuntza taldeak zein modutan jokatu den hurrengo fasea. Lau ekipoko bi talde izango dira, eta ligatxoa jokatu dute. Ondoren, finalerdi eta finala iritsiko dira, eta maiatzean bertan amaituko da aurtengo txapelketa.

Oraingo lau taldeetako bi lehenak sailkatuko dira. Orain badakigu nola parekatuko diren ondoren: lau ekipoko bi taldetan. Sistema berrezi horri, erdi-brometan, *Final-Four* izena jarri diote antolatzaileek, baina ez du antzik Europako saskibalo finala jokatzeko moduarekin.

Hurrengo faseetako ekipok zehazteko ez da zozketarik izango, horrela izango dira parekatzeak (letra taldeari dagokio, zenbakia postuari):

- A taldea: A1, B2, C1, D2.
- B taldea: A2, B1, C2, D1.

Hiru asteburutan, partidu bakarrera jokatu da. Beraz, gol-averageek garrantzi handia izango dute. Talde bakoitzeko bi lehenak, gurutzatuta elkartuko dira finalerdietan; baina adi, iaz ez bezala, aurtun partidu bakarrera izango da. Ondoren, finala, maiatzaren 28an: orduantxe jakingo dugu nor den Zaldibarko txapelidun berria.

I
R
T
A
B
E
R
N
A

**Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11**

Deba Garaia Inmobiliaria

**Inmueble eta finantza
agentzia**

Maalako Arrabala, 31 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 02

**ARRASATE
PRESS**

HARPIDETZAK

77 08 15

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

● Arantxa Campos “Plazandreok” iniziatibaren sortzailea

Denok onartzen dugu emakume eta gizakumeen arteko berdintasuna, baina politikaren arloan, emakumea, gizonarekin konparatuta, boteretik oso urruti dago. Donostian, horren aurkako plataforma eratu berri da: “Plazandreok”. Arantxa Camposekin horretaz hitz egin genuen Arrasatera etorri zenean.


– Ez duzu uste plataforma honen eraketa zertxobait presionatua izan dela?

– Ez. Kandidatura honen aurkezpenak, errealitateko beharrei erantzuten diela uste dut. “Plazandreok”ek, Donostiako Mugimendu Feministaren barruko erreflexio politiko bati ere erantzuten dio. Urteen joan etorriaz, botereak aurpegi asko dituela eta modu askotara aurkezten dela ikusi dugu. Plataforma hau eratzearen beharrak, boterea beste modu batean birdefinitu beharri erantzuten dio. Zentzu honetan, ez dugu geure burua sozialki gainontzeko partidu politikoen kandidaturen kota berberekin parte hartzeri behartuta ikusten; guri hori oso ondo iruditzen zaigu eta bertan parte hartzen duten emakumeen partizipazio-

maila ahalik eta handiena izatea espero dugu, baina kandidatura hau aurkezteak errealitateko beharrei erantzuten diela uste dut. Emakunderen datuen arabera, azken bost urteotan emakumeak politikan duen partehartzea jeitsi egin dela ikusi dugu, eta emakumeok politikan ere egon behar dugula adierazi digu horrek.

– Horren aurka lan egiten duten emakume taldeak ikusita, nola uler daiteke jeitsiera hori?

– Batetik, gizarte guztiak “berdintasunaren eskubidea” onartzen duela esan daiteke, baina errealitatean, ezer ere ez da aldatu, hau da, “denok gara berdinak baina beti gaude berdinak”, eta hori ez da horrela. Gainera, krisi egoera batean, defentsa gutxien duten estratuak, horien artean emakumeak, euren jatorri puntura bueltatzen ari dira; emakumea, beraz, hasierako bere “amaren” eta “emaztearen” paperera bueltatzen ari da. Honek, horrela esanda, oso esageratua dirudi, baina gero, datuak eta estatistikak hartu, eta enpresa baten berrantolaketa ikusten duzunean, kalera doazen langileen artean, gehienak emakumezkoak di-



rela ikusten dugu. Denok berdinak bagara, zergatik diferentzia horiek?

– Zeintzu izango lirateke “Plazandreok”ek aurrerantzean jarraitu beharreko pausoak?

– Gure hasierako helburua, 300 bazkide lortzea da. Bi kriteriorengatik jarri dugu kopuru hori: Alde batetik, hauteskunde munizipalera joan ahal izateko bazkideak behar ditugulako eta bestalde, alkatetzan emakume zinegotzi bat izatera heldu ahal izateko sortu behar den sarea, kopuru horrekin hasita lor dezakegulako. “Plazandreok”en parte hartzeko modurik sinpleena, bazkide izatea da; urtean 1000 PTA ordaindu behar dira. Gero, lan-

batzorde batzuekin egituratzen da taldea: Lan-batzorde horiek, udal-hauteskundeetarako programa planifikatzen dute. Komisio honetan, koordinadora bat dago eta bertan puntu guztiak diskutatzen dira. Gure azken helburua 25 emakumez osatutako zerrenda bat eratzea da. 25eko kopuru hori, Donostiako alkatetzara kandidatura aurkeztu ahal izateko gutxieneko kopurua da.

– Zer moduzko harrera izan duzue orain arte?

– Egia esan, 6 hilabete daramatzagu barne-lanean. Orain arte ditugun inpresioak, bakoitzak lan egiten duen sektorearen inguruko inpresioak dira: plataforma honek etorkizuna izan dezakeela pentsatzen dute. Baina, bi gauza esan behar ditut: Donostiako alkatetzara lortu nahi dugu, baina ez da hori gure helburu bakarra; gure helburu nagusia emakumeak politika arloan partehartze handiagoa izatea da.

● **“Gure helburuetariko bat Donostiako alkatetzara lortzea da. Beste bat, emakumeak politika arloan partehartze handiagoa izatea”**



Pilar Sanchez



Toñi Torres



Milagros Ramirez



Tere Balanzategi

Organoen transplantea Oparirik ederrena

Maria Agirre

Orain dela urte batzuk nork pentsatuko zuen hildakoen organoak beste batzuen biziak salbatzeko erabiliko zirenik? Baina hala da. Gaur egun, transplanteen bidez, gaisotasun sendagaitzak dituztenek bizi izaten jarraitzeko aukera izaten dute. Baina aukera hori ez da bapatean etortzen eta askotan urteetan itxoin behar izaten da.

Pilar Sanchezek eta Milagros Ramirezek halaxe aitortzen dute: "guri loteria tokatu zitzaigun". Bi emakume

hauek ondo baino hobeto dakite zer den gaisotasunaren menpe bizi izatea. Eurentzat ez dago munduan osasuna edukitzea baino garrantzitsuegokorik. Inoiz ere ahaztuko ez duten egun baten norbaitek osasuna oparitu zielako, loteria tokatu zitzaie esaten dute.

TRANSPLANTATUAK

Giltzurrunekin arazoak aspalditik zituen arren, odolletik toxinak kentzeaz, hau da, odola garbi edukitzeaz arduratzen diren organoek gero eta okerrago lan egiten zuten Pilarren gorputzean. Horregatik, dialisira joaten hasi zen. Giltzurrunek egiten ez zioten lana, makina batek

egiten zion ospitalean. Hasi-ran Donostiara joaten zen dialisia egitera, baina gero, bere kasa etxean egiten hasi zen. Makinaren menpe egon zen bi urtez, orain dela sei urte, sekula ahaztuko ez duen eguna heldu zen arte.

Alabarekin zegoen etxean telefonoak jo zuenean. Medikua zen. Hildako baten giltzurrunak transplantatzeko prest zeudela eta segituan Crucesera joan behar zuela esan zion. Pilarrek, bera ez zela joango eta, beste gaisoren bati deitzeko erantzun zion medikuari. Baina bere bila zihuan taxia bidean zen ordu-rako. Crucesera heldu zenerako, bertan ziren giltzurrun

bat lortzearen Pilarrekin burrukan egingo zuten beste hiru gaisoak ere. (Organo emale-ren batek giltzurrunak ematen dituenean, beti lau gaisori deitzen zaie. Probak egin ondoren, bi gaiso aukeratzen dira eta giltzurrun bana jartzen zaie). Azkenean, Pilar eta haur bat izan ziren zortedunak, eta segituan kirofanora jeitsi zituzten. Iratzartzean munduko emakume alaiena sentitzen zen.

Trasplatea egin ziotenetik, bizitza izugarri aldatu zaiola aitortzen du Pilarrek eta bizitza beste era batera ikusten duelako, begiak aldatu zizkiotela iruditzen zaio. Ez daki nork itzuli zion bizia,

baina hori bai, arraina gustatzen zitzaiola badaki. Lehen ez zuen arrainik jaten; orain, izugarri gustatzen zaio.

Milagrosi iaz egin zioten transplantea. Orain dela bost urte jakin zuen bere giltzurrunak ere ez zeudela behar bezala, eta segituan dialisira joaten hasi zen. Bost urtean zehar eta astean hiru bider, Gasteiza. Baina azkenean, bizitza aldatu zion telefono deia izan zuen Milagrosek ere iazko irailean. Ospitalerako bidean ez zuen transplantean pentsatu, ez zitzaion burutik pasatzen giltzurrun bat berarentzat izan zitekeenik. Baina zortea bere alde izan zuen eta ebakuntzatik esnatu ostean, bizitza berria hasi zuen.



TRANSPLANTE ZAIN

Pilarren familiakoek urteko egun bat era berezian ospatzen dute. Eurentzat edozein urtebetetze baino garrantzitsuagoa da Pilarri transplantea egin zioten eguna ospatzea. Milagrosi, berriz, hilabeteak falta zaizkio urtea betetzeko, baina dagoeneko

hilabetero gogoratzen ei da egun berezi hartaz. Baina batzuk aukera hori duten arren, oraindik beste batzuk egun hori noiz ospatuko zai daude.

ALCERek (giltzurruneko gaisotasuna dutenen elkar-teak) dituen datuen arabera, oraingoz sei arrasatearri egin zaie giltzurruneko transplantea eta beste zazpi dira itxaron-zerrendan daudenak. Kasu honetan daude Tere Balanzategi eta Toñi Torresen senarra, Vicente Bartolomé.

Terek zazpi urte daroa dialisira joaten, baina urte hautan zehar izan du egoera hori aldatzeko aukerarik. Orain dela sei urte transplantea egin zioten. Ebakuntza osteko egunak zoragarriak izan ei ziren, baina zorionak gutxi iraun zuen, bost egunetara gorputzak ez baitzuen organo berria onartu. Gertakizun hark lurjota utzi zuen, baina indar handiko emakumea denez, aurrera egin ahal izan zuen. Bost urte beranduago, bigarren aukera azaldu zitzaion. Baina orduan ere gorputzak




**raingoz, sei
arrasatearri
egin zaie
giltzurruneko
transplantea**

ez zion giltzurrun berria onartu. Jadanik bi aukera galdu dituen arren, edozein egunetan beste berri on bat izan dezakeela sinesten du.

Toñiren senarrak heredentziaz jaso zuen gaisotasuna. Arazoekin aspalditik dabilen arren, Vicentek bi urte daromatza dialisian. Bitartean, bere etxean irrikaz itxaroten da sendatzeko aukera ekarrikodion bigarren telefono deia. Lehena, joan zen urteko azaroan jaso zuen. Baina orduan zortek ez zion lagundu, beste bi gaiso aukeratu baitzituzten giltzurrun haien jabe izateko. Toñik gogoratzen duenez ilusioa handiaz joan ziren Crucesera eta horregatik, benetan gogorra izan zen ospitaleetik eskutsik itzultzea. Baina Toñiren etxean ere itxaropenari tinko eusten zaio eta gauero oheratzean "bihar izango da" pentsatzen dute.

ORGANO EMALEAK GEHITUZ

EAEan 1992an 86 giltzurrun transplante egin ziren eta iaz berriz, 116. Datu hauek erakusten dute gero eta jende gehiago dela organo emalea, baina oraindik ez da nahikoa. Organoak lortzeko aukerak gutxi dira, tartean baldintza asko bete behar izaten baita, horregatik, emale kopurua handia izatea ezinbestekoa da. Erreportai honetako protagonistak ere bat datoz, gizartea sensibilizatuta egotea garrantzitsua dela azpimarratzean: "Jenderen artean ezjakintasun handia dago. Organoak hil aurretik kentzen direla uste du askok, baina hori ez da. Organoak, hildakoak 48 ordu hilda daramatzanean kentzen dira. Transplantearen inguruko mamuak uxatu egin behar ditugu eta giza-elkartasuna erakutsi. Izan ere, nork daki etorkizunean zu zeu edo zure familiartekoren bat horren premian egongo zareten?"



Astean hiru bider joaten da Tere Gasteiza dialisia egitera.



93-94 denboraldiko nesken taldeak 2. izatea lortu du ligan.

Mutilen ezusteko garaipena eta nesken erronka Kopan

Mondra futbol taldeak emaitza bikainarekin eman zion buelta Aste Santuko oporretako balantze tristemari. Etxean bi partidu triste galdu ondoren (Mondra 0 - Santurtzi 1; eta Mondra 0 - Arenas 1), eta Mungiarekin ere kale egin ostean (2-1), liderrari bisita eta hara ezusteko harrigarria: Amurrio 0 - Mondra 3.

Ez zen txiripazko emaitza izan gainera; Mondrak ondo jokatu zuen, eta Moreno, Ruben eta Aranbururen golek justizia osoz erabaki zuten partidua. Tamalez, emaitza pozgarri horrek Mondraren aurtengo ibilbidearen ezaugarri nagusia azpimarratu besterik ez du egiten: irregulartasuna. Irabaztea espero zitekeenean,

kale, eta arerio zailenari garaituz, halaxe ibili dira Iñaki Zeziagaren mutilak, eta ondorioz 3. mailako sailkapen taularen erdialde epelean ibiltzea izan da. Honenbestez, ez dago gora edo behera egiteko aukerarik, eta beraz, datorren denboraldian dauka pentsamendua klubak; bereziki, entrenatzaile berria izango denak, Nedzad Zavijevic bosniarrak.

Mondraren oinarrizko talde garrantzitsuenei dago kienez, bai emakumezkoek zein 2. regionalekoek amaitu dute jada liga. Neskak, luzez lider joan ostean, 2. geratu ziren azkenean Liga territorialean, Lesakako Gure Txokoaren ostean. Edozein modutan, iaz 4. izan ostean, ligan sekula lortu-

tako mailarik garaiena izan da neskek iritsitakoa. Joko aldetik ere, historiako unerik gozoena bizi dute.

Orain Kopa jokatzea tokatzen zaie. Iaz irabazi egin zuten, baina aurrean zailagoa izango zaie, goiko Euskal Ligako talde indartsu batzuek ere jokatzea erabaki dutelako, tartean Anaitasuna txapeldunak. Bi taldetan banatu dira Kopako ekipoak, eta Mondra hauekin geratu da: Eibar, Zumarraga, Aloña Mendi eta Aretxabaleta. Partidu bakarreko ligatxoa egingo dute, eta bi lehenak finalerdietara pasako dira. Eibar da faboritua (goiko mailan dabil), eta Mondrak 2. posturako esperantzak baditu, baina finalerdietan zailago izango du.

LABURRAK

Saskibaloia

Altsasuren kantxan galdu ostean (partidua etxeokoe izan zuten kontrolatuta hasieratik), lidergoan dago oraindik Arrasate Saskibaloia taldea, baina Altsasurekin eta Atletico San Sebastian taldeekin parra. Borroka gogorra daukate aurrean arrasatearrak, bai donostiar zein nafarrak oso indartsu datozelako. Hala ere, esperantzak goian daude, 2. mailako igoera fase honetan.

Eskubaloia

Igoera fasera ozta-ozta sailkatu ostean, Arrasate Kirolak taldea paper tristemari egiten ari da benetan. Gasteizen, 22-11 galdu zuten CD Vitoriaren aurka. Asteburu honetan, Deusto taldea dator Iturripera, eta ea Arrasatek garaipenaren poza ematen digun, igoera deskartatuta dagoen arren. Hala ere, kategoriako aurkariak dira deustuarrak.

Igeriketa

Haritz Arrieta igerilari gazteak asteburu honetan jokatu den Euskadiko selekzio txapaleketan parte hartuko du, Gipuzkoako talderako hautatu dute eta. Junior kategorian, 50 metro libreetan egingo du igerian 16 urteko arrasatear honek. Bestetik, larunbat arratsalde honetan igeriketa frogak direla eta itxita egongo da Musakolako igerilekua.

ARRASATE PRESS
HARPIDETZAK
 **77 08 15**



ETXEPARE - BILINTX LIBURUBENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 BERGARA
 Tfnoa: 76 40 50

PENALTIAK

● **2. regionaleko Mondra, taldearen estreinu-zko denboraldian, paper hobea egiten ari da Kopan, duela aste batzuk amaitutako ligan baino (igoera asmoak lortu-takotik oso urruti geratu ziren azkenean). 7 partidura da Koparen lehen fasea, eta bi jokatu eta bi irabazi ditu Mondrak (asteburuan, 3-1 Sestauri).**

● **Dorletako Ama txirrindularitza eskolako Caldereria San Pedro taldeko txirrindulari batek, J.M. Elizburuk, 2. postua eskuratu zuen Murgiako euskal ligako 78 kilometroko karreran. Ihesaldi batean sartu ondoren lortu zuen postu bikain hori Elizburuk.**

Itzuliaren amaiera hiru urte barru Arrasaten?

Euskal Herriko Txirrindulari Itzuliko antolakuntzan izandako arrakastak animaturik, Arrasateko Txirrindulari Elkartarak Itzuliaren lekuko izan nahi du berriro ere, eta hiru urte barru, 1997an, itzuleraren amaiera bertan antolatzea eskatu diote antolatzaileei.

Eskaera datorren astean ofizialduko da, alkatearekin kontsultatu ondoren, udalaren jarrera baikorra konfirmatu baitute Txirrindulari Elkartekoek. Amaiera antolatzeak bi helmuga prestatzea dakar: 1. sektore bat eguerdian amaituko litzateke Arrasaten bertan, eta 2.a krono-igoera izango litzateke. Urkulu edo Untzilla dira amaiera posible batzuk, baina horretan faktore bat hartu



Tony Rominger txapeliduna Arrasaten, Mapeiko taldekide batekin.

behar da kontuan: igoerako errepideak irteerarako segida izan behar du nahitahenez, traba egin barik autoak jaitsi ahal izateko.

Bestetik, Itzuliko anekdoten artean, bi datu aipatu behar: Asier Guenetxea atxalbaltarra azkena geratu zen,

faroltxo gorria; eta bestetik, iaz Arrasateko San Juan afizionatu saria irabazi zuen Agustin Sagasti mungiarra izan dela Euskadiko Itzuli honetan etapa bat irabazi ondoren, Euskadiko taldeko lehen garaipen profesionala lortu duen karrerista.

EMAITZAK

Futbola

3. maila: Mondra 0 - Santurtzi 1
Mondra 0 - Arenas 1
Mungia 2 - Mondra 1
Amurrio 0 - Mondra 3
2. regionala (kopa): Mondra 4 - Sporting Herriera 1
Jub. Ohorezko Liga: Mondra 2 - Beti Ona 1
Kadeteak, 1. maila: Eibar 4 - Arrasate 4
Hurrengoak:
3. maila: Mondra - Amorebieta. Atxabalpe, igan., 17.00.
Emakumezkoak (kopa): Mondra - UDA. Atxabalpe, lar., 17.00.
2. regionala (kopa): Antzuola - Mondra. Igan-dea, 16.00.
Jub. Ohorezko Liga: Mundaiz - Mondra. Donostia, lar., 16.00.
Jub., 2. maila: Arrasate - Billabona. Atxabalpe, igan., 12.30.

Kadeteak, 1. maila: Aloña Mendi - Arrasate. Oñati, igan., 12.00.
Kadeteak, 2. maila: Arrasate - Intxurre. Atxabalpe, igan., 11.00.
Haurrak: Arrasate - Urki. Atxabalpe, igan., 09.30.

Saskibaloia

2. maila, igoera fasea: Altsasu 80 - Arrasate 68
Kad., mutilak: Loramendi Kirolak 116 - Almen 37
Arrasate B 44 - Zarautz 33
Kad., neskek: Almen B 31 - Arrasate B 34

Eskubaloia

Igoera fasea: Vitoria 22 - Arrasate Kirolak 12
Hurrengoak:
Igoera fasea: Arrasate Kirolak - Deusto.

Pilota

Deba Arroa txapelketa, Antzuola - Arrasate (0-3):
Nagusiak (16-22), jubenilak (14-22), infantilak (7-18).
Herri-artekoa, eskuz, Azpeitia - Arrasate (1-2):
Nagusiak (11-22), jubenilak (22-12), infantilak (10-18).
Herri-artekoa, erramintaz, Arrasate - Donostia (1-1):
Paletaz (35-33), pala motzean (28-40).
Hurrengoak:
Deba Arroa txapelketa: Arrasate - Oñati parekatzeak. Iturripe, igandea.
Herri-artekoa, eskuz: Arrasate - Azpeitia parekatzeak. Iturripe, ostirala, 19.00.
Herri-artekoa, erramintaz: Donostia - Arrasate parekatzeak. Anoeta, larunbata.

GORKA
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 78

PEUGEOT-TALBOT
Salmenta eta zerbitzua
IBABE GARAJEA
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

Altzariak
Diseinua
Apainketa
M ARENAZA
Bizkai, 1 ARETXABAETA
Tfnoa: 79 08 07

Garapen pertsonala

Yoga Elkarteak antolatutako ikastaro hauek, elkartzeko taldeak dira. Besteekin erlazionatu eta komunikatzeko gaitasunak hobetzeko aukera eskaintzen da bertan. Norbere ideiak, esperientziak, sentimenduak besteei aditzera ematea; eguneroko arazoei aurre egiteko gaitasuna handitzea.

Gestalt-a (formen Psikologia) eta Psikologia Transpersonal Integratzailea erabiltzen dira; jolasak, gorputzaren espresioa, psikodramak, bioenergetika erabiltzen dira, eta garrantzitsuena, "Taldeen jasotzea" esaten zafona. Bertan, pertsonak bere sentimendu eta sentsasioak adierazten ditu, baina beti orainaldian, izan ere, gatazkak orainaldian baino ezin dira konpondu, iraganaldikoak edo etorkizune-

ko fobiak edo beldurrak izan arren. "Orain eta hemen" deitzen diogu horri.

"Gestalt" hitza alemaniarra da eta "konfigurazioa" esan nahi du, hau da, forma edo irudia eta fondoa. Gu ihardura batean kontzentratu bageaude, aktibitate hori forma edo itxura izango. Bartzuetan, gure buruaren sakontasunetik, kontzentrazio hori zailagotzen diguten gatazka edo fobiak agertzen dira.

Taldeko dinamika hauen helburua, pertsona bere gatazka eta beldurrez jabetzea edo kontziente egitea da. Urrats hori ezinbestekoa da eta arazoak konpontzeko lehenengo gainera.

Pauso bakoitzean defentsako mekanismoak izaten dira, erresistentzia jarri eta aurrera egiteko zailtasunak



jartzen dizkigutenak. Apurka apurka landuaz joan beharra dago, larregi "matxakatu" barik, bestela "erreboteko efektua" gerta daiteke eta arazoari aurre egin beharrean, atzeraka egiten da.

Konturatzearen ondoriozko defentsak mekanismoa, adibidez, "proiektzioa" izaten da, hau da, gure erantzukizunak besteengan proiektatzen ditugu. Aitzakiak bilatzen di-

tugu onartu eta geuretzat hartu beharrean.

Gestalt-ean "kulpa" hitza erantzukizunaz ordezkaten dugu. Norbera da bere bizi-tzaren eta ekintzen erantzule. Gutako bakoitza baino ez da norbera.

JOSE LUIS ARMENDIA
YOGA ETA MASAIA IRAKASLEA
ETA PSIKOTERAPEUTA
GESTALTIKOIA.

AED ELKARTEA
AEDko mobidie
antolatututa

BERTSO AFARI
GAZTEA

NOIZ: apirilaren 23an, arratsaldeko
NORTZUK:



Amaia Telletxea



Kepa Intxausti



Estitxu Arozena




Iratxe Ibarra

PREZIOA: 1.000PTA
IZEN EMATEA: Apirilaren 22a baino kehenago,
AEDko bulegoetan (Tfnoa: 77 12 28), Iturriotz, Hire

ZER NAHIAGO?

Joe McNeill Ingeleseko irakaslea



- Nongoa zara? Edinburgokoa.
- Edinburgo ala Arrasate? Arrasate.
- Euskaldunon izaeratik zerk harritzen zaitu? Oso solidarioak zarete.
- Otaratekoak zerekin betetzen dituzu? Solomoa piperrekin dut gustoko.
- Instrumentorik jotzen duzu? Bai, saxoa.
- Beste zein lanetan aritzea gustatuko litzazuke? Zientzia lanetan.
- Alkondarak ala kamisetak? Kamisetak.
- Inoiz bota dizuten lorarik politena? Edozer gauza egiteko kapaz naizela.
- Defekturik haundiena? Ahozabala naiz batzutan.
- Sekula izan duzu ilea luze? Bai.
- Kantatzen duzu dutxan? Bai.
- Whiskia edo sagardoa? Whiskia.
- Eskoziako jaki tipiko bat? "Haggi" a.
- Noiz arte Arrasaten? Uf! Nork daki!
- Abenturazalea zara? Baietz uste dut.
- Esaidazu gezur bat: Ez zait gezurak esatea gustatzen.
- Debilidade bat: Lo egitea.
- Tabako marka bat: Orain ez dut erretzen; uzten ari naiz.
- Maiteminduta zaude? Bai.
- Gaua ala eguna? Gaua.
- Arrasateko txokorik politena? Maala kalea.
- Musika talde edo musikari bat? Kiko Veneno eta Bethoven.
- Zure lanaren alderik txarrena? Estresa.
- Zein ordutan jeikitzen zara? 8.30etan.

BERTSOAK

Eguraldia Aste Santuan

Aste Santuak kargatu ditu haserrearen indarrak aspertu gaitu oraingo hontan haizeak ta kazkabarrak. Karakolaren itxurarekin ez dira izan bakarrak makina bati sortu zaizkio mukiak eta adarrak.

Aurretik izan genuenakin ez zen errez sinistea ilusioen espektatiba horren behera iristea Jesukristoren pasioakin eguraldiak txistea: hilik ez dakit dagoen baina kostatzen zaio piztea.

JON IÑAKI IZARZELAIA

Goizalde

D A S T A P E N A

ORDUTEGIA

7,30 - 21,30
Jai-egunetan:
10,00 - 21,30

Gosaldi Berezia



300 pza.

BEREZITASUNAK

- Kaputxinoa
- "Royal coffee"
- Alkoholik gabeko koktelak
- Sandwich-ak
- Izoziak
- Sangria

Pintxo apartekoak



Etor zaitez
Zain gaituzu!

Txokolate
eta
txurroak



Iturriotz, 33 • Iturriotz, 33 • Iturriotz, 33 • Iturriotz, 33 • Iturriotz, 33 • Iturriotz, 33

Olatz Beobide

Antzerkian eta telebistan

ETBko umore saioetan lan egindakoa denez, seguruenik gehienok telebistatik ezagutuko duzue Olatz Beobide aktorea. Baina antzerkiko taula gainean ikasi duen aktorea dugu Olatz. Larunbatean, In Fraganti taldeko beste kideekin batera "Hala ba zan ez ba zan sar dadila..." obra antzeztera etorriko denez, taula gainean zelan moldatzen den frogatzeko aukera izango duzue.



Joseba Tapia, Angel Unzu eta Pascal Gaignek parte hartu dute. Eta aurreko obran bezela, Edi Naudok zuzendu du obra.

- In Fraganti taldearen bigarren antzezlanaren antzeztuko duzue larunbatean. Orain arte zelako arrakasta izan du obrak?

Joan zen urteko urrian aurkeztu genuen obra eta gu pozik gaude orain arte izan duen arrakastaz. Martxa onean doala uste dugu, baina ez dakigu "In Fraganti" obrak izan zuen arrakasta lortuko ote duen. "In Fraganti" 70 emanalditan aurkeztu, diska bat grabatu eta ETBn ikusteko aukera ere izan zen.

- Testuak eta musika jende ezagunak egin dizkizue.

"Hala ba zan..." antzezlaneko testuak idazten Joxerra Garzia eta Felipe Juaristik lagundu digute. Musikan, berriz,

- Eta honetaz gain, aktorea lanetan ere aurpegi ezagunak.

Hiru aktoresak parte hartzen dugu, Ane Gabarainek, Idoia Sagarzazuk eta nik neuk, eta hirurok telebistan lan egin izan dugu. Anek, "Bi eta Bat" saioan lan egin zuen eta Idoia Sagarzazuk, berriz, aurkezle bezela. Nik neuk Bi eta Bat, Penelope Enea

.....
"Jendeak telebistatik ezagutzen gaitu, baina hori mesedegarri zaigu"

eta Duplex saioetan. Jendeak telebistatik ezagutzen gaitu eta uste dut horrek bultzatzen duela jendea antzerkia ikustera joatera. Alde horretatik telebistan lan egiteak mesede egin digu.

- Zuk zeuk zer duzu nahiago, telebista ala antzerkia?

Desberdinak dira. Antzerkian publikoak hortxe dago eta hori erakargarria da. Telebistan, berriz, lana bizkor eta asko entsaiatu gabe egiten da baina horko saltsa ere atsegin dut.

- Zein da "Hala ba zan ez ba zan sar dadila..." antzezlanaren gaia?

Obra hori sketch eta abestiz osotua dago eta umorea oinarritzkoa du, baina honek ez du esan nahi umorezko obra baino ez denik. Gaia gezurren ingurukoa da. Jendeak kalean izaten duen jokaera ere jorratzen dugu.

- Jendea pozik ateratzen da obra honetatik?

Bai, jendea gustora ateratzen da. Orain arte egin ditugun emanaldiek behintzat hori erakutsi digute. Ondo pasa eta gustora sentituko direlako gomendatuko nioke jendeari antzezlan hori ikustera joatea.

LABURRAK

Idazle gazteen banda

Datorren asteazkenean "Lubaki Banda"ren, idazle gazte osotuta dagoen taldearen bisita izango dugu. "Lubaki Banda" hemezortzi urte inguruko hamabost bat idazle gazte osatzen dute. Gehienak gipuzkoarrak diren arren, taldean badira bizkaitarrak, nafar bat eta iparraldeko beste kide bat. Euskal-Herrian idazle gazteak bazirela, baina euren arteko harremanik ez zegoela sortu zen taldea. Baina euren arteko hartuemanak sendotu eta finkatzeaz gain, taldea eratzeko lanak argitaratzeko orduan erraztasunak ekarriko dizkielako batu ziren batez ere. Eta itxura denez, honek ekarri du fruiturik, izan ere "Susa" aldizkari azken zerbakian euren lanak argitaratu baitziren eta itxura denez, hurrengo zenbakia ere bandakoan lanekin osatuko da. Honetaz gain, taldeko partaide batek, Xabier Aldaik, "Bala zeru urdina", bere lehen liburua argitaratu du.

Udal liburutegiak antolatuta, asteazkenean Monterronen izango dira talde honetako bost kide: Harkaitz Cano, Xabier Ganzarain, Lierni Ibarretxe, Ibon Iribarren eta Asier Serrano. "Hegaberak Lubakietan" izeneko saioan eta musikaren laguntzaz euren poesia, ipuin eta idazlanak irakurriko dituzte idazle gazte hauek. Saioari arratsaldeko zazpitan hasiko da eta ordu dubete inguru iraungo du.

ITURGINTZA ETA KALEFAKZIOA

MENDIA

Etxeko konponketak - Kalefakzio-instalazioak

Uriburu, 6 ARRASATE Tfnoa: 79 57 59



PAZI-OLA

GALDARAGINTZAKO LANTEGIA

Zaldispe kalea, 2
ARRASATE Tfnoa 79 29 94


Zine programazio berezia ostegunetan Amaian

Ez da zinekluba izango, baina izango du antzik. Ez dira bestela ikusi ezin daitezkeen filmeak izango, baina bai sare komertzialetik aparte nolabaiteko interesa dutenak. Oraingoz udalak antolatuko du, baina aurrerantzean taldetxo bat sortzea da asmoa. Eta orduan izango da berriro zinekluba Arrasaten. Udalak antolatu duen zinema programazioaren inguruan dihardugu.

Programazio hori aste honetan hasi da Amaia antzokian, Giuseppe Tornatore italiarraren 'Cinema Paradiso' filmearekin. Hori bezala, kritika bikinak eta zinemaldietan sariak jaso dituzten luzemetriak izango ditugu apirilean. Hilaren 21ean Guillermo del Torok zuzendutako 'Cronos' filme mexikarra, eta 28an, Jean-Claude Lauzon kanadiarraren filme ezagun bat, 'Leolo'.

Proiektzioak ostegun gaueko 9.30etan izango dira, Amaia Antzokian, eta sarre-ra 300 PTA izango dira, 250 gazte txartelarekin. Uztailen, 10.30etan izango dira emanaldiak, Monterronen, eguraldi txarrik ez badago. Uda arteko programazioan, besteak beste, honako filmeak izango ditugu ikusgai: 'Los amigos de Peter', 'Bagdad Café', 'Acción mutante' edo 'Akira'.

60etako hamarkadan



'Leolo', filme frantses-kanadiar bitxi eta saritua, hilaren 28an ikusgai.

martxan jarri zen Arrasateko zineklubaren jarraipena izan nahi du programazio honek. Garai batean ehundaka bazkide izan zituen klubak, Gurea zineman ematen zituzten filmeak, eta zentsuraren aurkako lanean aritu behar izan zuten. Zineklubaren azken urteak Amaian izan ziren, eta antzokia 1988an itxi zenean, eten egin zen tradizioa. Ora in berreskuratu egin nahi du

udalak, eta jendea animatzen hasteko antolatu dute programazio hau.

Bestetik, haurrentzako zinema ziklo bat ere hasiko da igandean. Arratsaldeko 5etan izango dira emanaldi hauek, eta sarrerak 200 PTA balio izango du. Lehen filmea (apirilak 17) 'Momo' izango da, eta hurrengo igandekoa (hilak 24), 'Peraustrina 2004', marrazki bizidunetako zinta bat.

Sexu diskriminazioaz komiki lehiaketa

Emakume taldeek eta udal emakume sailak antolatutako, komiki lehiaketa eta erakustaldia antolatu da gai baten inguruan: gizartean sexu-desberdintasunak ezartzen dituen trabak. Sentsibilizatzea da ekimen honen helburua.


Egin beharreko lanak, biñeta bakarreko komiki esanguratsuak dira, kolorez zein zuri-beltzez Din A4 edo A3 formatoan, euskaraz edo erdaraz. Identifikazio daturik gabe joango dira, eta egilearen izena gutun-azal itxi batean joango da. Epea: apirilaren 22a baino lehenago, IMIko bulegora eroan. Epaimahaiak emakumearen problematikarekiko hurbiltasuna baloratuko du komikietan, eta irabazlearen izena hilaren 29an ezagutaraziko da: 75.000 PTAko saria jasoko du. Aurkeztutako lanekin erakusketa egingo da.

Argazki zaharrak

Txirindulari Itzuliaren inguruan antolatutako kultur inizatiba interesgarri bat argazki zaharren bilketa izan zen, erakusketa bat egin eta liburuxka bat (Txirindularitza Leintzarraren historia) argitaratzeko. Bi ekintzen arrakasta nabarmena izan da, eta ekimen horretarako beren argazki zahar eta baliotsuak utzi dituztenak berreskura ditzakete, Monte tabernan.

Lore lurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE fnoa: 79 14 99



ERAIKUNTZAK

Olarte, 30 etxabea.
Tfnoa: 79 77 11
Faxa: 79 77 11
ARRASATE
Postakutxa: 118



1945-46 ikasturtea, Santa Barbaran

tea egin zuten mutikoak dira erretratuko hauek. Garai hartan 13-14 urte zituzten, eta udaberri aldera Santa Barbaran argazkia ateratzen zieten. Gaur egun Santa Barbarako taberna denaren alboan ateratakkoa da eta ikastetxea, berriz, zaharra, gaur egun Gazteluondoko San Frantzisko Xabier Ikastola dena.

Saturnino Lopez biatorista izan zuten maisu.

Goitik ezkerretik hasita, **Jose Antonio Mendikute, Inazio Balanzategi, Julio Marañon, Eduardo Eraña** eta **Pako Barrena.**

Lukas Bergaretxe, Jose Mari Beitia, Santi Barrena, Gallastegi, Juanito Arriaran, Jose Antonio Arabaolaza, Luis Villar, Jesus Mari Legorburu eta **Jose Luis Arroitia.**

Prudentzio Zeziaga, Jabier Arizabaleta, Fidel Berezibar, Karlos Beitia, Martin Arana, Julio Leibar, Jose Ramon Ozaeta, Rafael Atxa eta **Jose Mari Bergaretxe.**

Jabier Aperribai, Jabier Salaberri, Inazio Mujika, Jose Cortés, Jesus Mari Martinez, Juanito Zubizarreta eta **Pako Uribe.**

J

an Jose Ikastetxean 1945-46 ikasturtean azken ikastur-

UGARAN jatetxea

Garagartza auzoa Tfnoa: 79 76 58 ARRASATE

HAUR ZINEA

Apirilaren 17an

MOMO

Apirilaren 24an

PERA USTRINA
2004

Maiatzaren 1ean

AL FILO DEL
ABISMO

Maiatzaren 15ean

BABAR EN
LA SELVA

Maiatzaren 22an

NAVIGATOR

Maiatzaren 29an

LOS
CABALLEROS
DE LA MESA
CUADRADA

Maiatzaren 8an

SOLO
EN CASA

AMAIA ANTZOKIAN
ARRATSALDEKO 5ETAN
SARRERA: 200 PTA



ARRASATEKO UDALA




· AIPUA ·

Ezer ere ez jakiteko modurik onena, dena batera ikastea da"

SAND

· JEROGLIFIKOA ·



Nola kantatu zuen bertsoa?

· GURUTZEGRAMA ·

1	2	3	4	5	6	7
8						
9			10			11
12		13			14	
15						
16			17			18
19					20	

J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Ustakabeko gertaera arriskutsua. 8. Arrasateko alkatearen izena. 9. Txar ez dena. 10. Bromoa. 11. Gogait. 12. Asteguna. 15. Gora jo. 16. Kataluniako ibaia. 17. Kolore hori zurbila. 19. (Ald.) Hosto iraunkorreko zuhaitza. 20. Palestinar Askatasunerako Erakundea.

Bertikalak 1. Arduratu. 2. Banaketa. 3. Euskal Batasuna. 4. Sestra. 5. Ehun sintetiko bat. 6. Itsasoan ugari. 7. Uhaska. 11. Mozkin. 14. (Ald.) Sinu. 18. Udalerrri Euskaldunak.

· HOROSKOPOA ·

Aries Nahikoa opor izan duzu aldi baterako. Orain, has zaitez berriz lanean.

Taurus Egin dituzun ilusio denak ahaztu, faltsuak dira eta.

Gemini Bakarrik zaudela iruditzen bazaizu, begiratu albora eta beti izango duzu norbait.

Cancer Jenio txar horiek utzi alde batera eta has zaitez kuttunagoa izaten.

Leo Espero duzun hori ez denez agertuko, alferrik zaude berari itxaroten.

Virgo Pixka bat "gafea" zaren arren, bada-kizu gauzak ongi egiten ere.

Libra Diru dena xahutu duzu oporretan, orain berriz aurreratzeari ekin behar.

Scorpio Utzi alde batera momentu txarrak eta onekin gogoratu zaitez.

Sagittarius Bizkar-hezurreko minak oso normalak dira zure adinean.

Capricorn Ez gazteagoen aurrean ekin-tza gaiztorik egin. Ahal den neurrian ondo erakutsi.

Aquarius Parranda gehiegi egin duzu oporretan eta orain ez duzu lanerako gogorik.

Piscis Osasun arloan beste edozer gauze-tan baino hobeto ibiliko zara.

BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.


GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

• AINHOA IRAZOLAREN GOMENDIOA •



Ez da zinezalea, baina "Los Tres Mosqueteros" filmea ikustera joatea gomendatu nahi digu, berari ere gomendatu egin diote eta. Datorren astean izango da Arrasaten, eta "lehen saioan, arratsaldeko 5etakoan joatea gomendatzen dut, umeekin, ordu horretako ikusle-goarekin, bizi egiten da eta pelikula". Filme hau efektuen-gatik ei da ikusgarria eta Arrasatera noiz etorriko itxoi-ten egon da Ainhoa. "Bestela antzerkira gehiago joaten naiz zinera baino, Arrasatera etortzen diren antzezlan gehienak ikusten ditu eta".

• PROGRAMAZIOA •



- 10 Igandea**
20.00etan
Astebete (errep.)
20.30etan
Mondragol
- 11 Astelohena**
13.30etan
Eguerdiko Berriak
13.35etan
"Kukaratxa Motel" (errep.)
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
Mondrasport
22.00etan
Filme Erraldoia: "David eta Goliath"
- 12 Asteartea**
13.30etan
Eguerdiko Berriak
13.35etan
Mondrasport (errep.)
14.05etan
"David eta Goliath" (errep.)
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
ATBketan
22.00etan
"Indiana Jones zorigaiztoko tenpluan"
- 13 Asteazkena**
13.30etan
Eguerdietako Berriak
13.35etan
ATBketan (errep.)
14.05etan
"Indiana Jones zorigaiztoko tenpluan" (errep.)
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
Tertulixan
22.00etan
Dokumentala
- 14 Osteguna**
13.30etan
Eguerdietako Berriak
13.35etan
Tertulixan (errep.)
14.05etan
Dokumentala (errep.)
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
Bakarka, Mari Karmen Garmendia
22.00etan
Filmea: "Hamaseigarrenean, aidanez"
- 15 Ostirala**
13.30etan
Eguerdietako Berriak
13.35etan
Bakarka (errep.)
14.05etan
"Hamaseigarrenean aidanez" (errep.)
19.15etan
Kukaratxa Motel
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
Astebete
22.00etan
Haurren filmea: "Arturo Erregea"

• KOMIKIA •



FELIPE MADINA
ZURAK
Zarugalde, 40 ARRASATE
Tfnoa: 79 13 78

VE ECUADOR
Bidaiak
Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

beatriz
oinetakoak eta poltsak
Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE

• SOLUZIOAK •

GURUTZEGRAMA
Horizontalak 1. Abentura, 8. Xa-
bier, 9. On, 11. OK, 12. Languna, 15.
Apetan, 16. Ter, 17. Larn, 19. Pinn.
20. PAE.
Berrikalax 1. Axolatu, 2. Banapen.
3. EB, 4. Nibel, 5. Tergal, 6. Ur, 7.
18. UE.
JERROGLIFIKOA
Bat-batean

ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65 ☎

Etxebizitzak

- **Apartamendua salgai** Arrasateko erdialdeko Olarte kalean. Sukaldea-egongela, bi logela eta ganbara. Aire egokitu eta berogailuaz. Prezio egokia. Tfnoa: 79 63 16. Gauzez deitu. Luis.
- **San Bixente kalean**, bulegotarako etxebehea alokatzen da. Tfnoa: 79 32 16.
- **Zure etxean gela bat libre** baduzu, neuk alokatuko dizut. Tfnoa: 77 04 98. Irene. Bulego orduetan deitu.
- **Etxebizitza salgai Uribe auzoan**. 90m2takoa. 2 gela, 2 bainu, garajea, trastelekua eta ganbara ditu. Hobekuntza ugari egindakoa da. Tfnoa: 79 37 99. Mikel. 8etatik 3etara
- **75 m²tako etxebizitza salgai**. Maala kalean, 23 zka. Tfnoa: 79 37 08.
- **Pisua saltzen da**. Santa Marina, 32. Sukaldea, egongela, 4 logela, bi bainu, 3 terraza, igogailua, berogailu zentrala, ... Tfnoak: 77 06 72 - 79 65 28.
- **Etxebizitza salgai** Santo Domingon (Errioxa). 85 m² berdegunedun urbanizazioan. igerilekua, frontoia, tenis zelaia. Erdialdean. Jantzia. Prezioa: 9.750.000 PTA. Tfnoa: 79 64 50.
- **Pisua alokatu nahi dugu** Arrasaten. Tfnoa: 80 12 97. (Arratsaldez deitu) Oier.
- **Logela bi ohekin** eskaintzen da. Tfnoa: 79 07 73.

Lana

- **Andra euskalduna**, etxeko lanak egin eta haurrak edo adineko pertsonak zaintzeko prest legoke. Tfnoa: 79 07 73.

- **Esperientziadun andrea etxeko garbiketak** egin eta haurrak zaintzeko prest dago. Bulego eta atariak ere garbituko nituzke. Dei egin 79 31 44 tfnora. Miriam.
- **Emakume euskalduna** eta esperientziaduna eskaintzen da garbiketak egiteko edo pertsona nagusiak zaintzeko. (Orduka). Tfnoa: 79 96 31.
- **Emakumea eskaintzen da** garbiketak egiteko, etxeak, bulegoak... Interesatuak dei egin dezala 79 63 27 tfnora. Natividad Uriarte.
- **Inglaterrara au-pair** bezala joateko konfidantzazko famili bat ezagutzen dut. Tfnoa: 79 24 59. Kris.
- **Masajeak etxean** emateko prest. Estheticienne eta kiro-masajista naiz. Tfnoa: 79 72 29. (Mari Karmen).
- **Esperientziadun neska** haurrak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 77 94.
- **Neska bat etxeko lanak** edo bulegoak garbitzeko prest. Tfnoa: 79 49 05. Ederne.
- **Emakumea garbiketara** lanetarako, edo haur eta pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 07 73
- **Masajista tituloduna** masaia terapeutikoak, kirol masaiak, erlajazio masaia eta masaia metamorfikoak ematen ditu. Tfnoa: 945 - 27 78 44.

Salerosketak

- **YAMAHA SZR 600 motorra** saltzen da. Berrikusita eta puntuan jarrita. Motor eder bat erosi nahi baduzu, deitu 79 91 59 tfnora. (Gauzez). Xabier.
- **Salgai: Amstrad 2086 PC** ordenagailua. Barruko 3 1/2 tako disketera, kanpoko 5 1/4

tako disketera, VGA pantaila, xagua, Acad diskoak, D Base diskoak, Lotus diskoak, jokuak. Prezioa: 30.000 PTA. Interesatuok dei egin 79 56 83 zbkira eta Eduardoz galdetu.

- **Argazki kamara** saltzen da, automatikoa, 2 objektiboduna. PRAKTIKA Bx20 markakoa. Berria. Interesatuak dei egin 79 49 05. Ederne.
- **Kanping denda familiarra** saltzen dut. Berriberria da. Tfnoa: 79 45 39. Jose Felix.
- **Eskiatzeko buzoa**. 42-44 tailakoa. Berria. Diseinu modernokoa. Prezioa: 10.000 PTA. Tfnoa: 79 64 50.

Denetarik

- **Telebista bat bota** behar baduzu eta oraindik martxan badabil, akordatu nitaz. Tfnoa: 79 25 47.
- **Egongelarako alfonbra** norbaitek oparituko balit, gustora ametituko nuke. Tfnoa: 79 64 50.
- **Platinozko belarririk** perladuna galdu zait, Zerkaostatetik Eskualde Ospitalera bidean. Tfnoa: 79 22 09. Eskertuko da.
- **Neskatilaren batek** poltsa bat ahaztuta utzi zuen Gazte Bulegoan, barruan bainujantzia (loraduna), bainu kapela, e.a. dituen.
- **Borda edo lur zati bat** bilatzen ari naiz. Leintz bailara eta inguruetan. Tfnoa: 71 47 10.

Aste Gazte

Lana

• Diputazioak lanpostu hauen deialdia egin du: klinika laguntzaile bat, erizain bat eta zortzi basozain. Epea: apirilak 19.

XIII. Uda Ikastaroak (EHU)

• Donostian, uztailaren 4tik irailaren 8ra bitartean izango da. 50 ikastaro eta mintegi eta 2 ikasketa-jardunaldi (hezkuntza, teknologia kudeaketa, ekonomia, musika...). Beka eskariak apirilaren 20ra arte. Matrikula epea: apirilaren 25 eta maiatzaren 20 artean.

Udalekuak

• Adina: 7-13 urte. Toki, txanda, hizkuntza modalitate eta adin ezberdinak. Aurten plazak zozketa bidez banatu behar dira. Epea: apirilak 22.

Naturan abenturazko kirol jarduerak

• Diputazioak antolatuta: Adina: 15-29 urte. Egun batekoa (5.900 PTA), asteburukoa (12.950 PTA) nahiz astebeteko (22.000 PTA) jarduerak aukeran. Kirol mota ezberdinak: rafting, hidrospeed, kainoietan behera jaistea, eskala-

da, arko-tiraketa, hipika, piraquak... Irteerak: apirilaren 11tik maiatzaren 31ra. Plaza mugatuak.

Auzolandegiak (lan-jardunaldiak)

• Euskal Herrian, Espainian eta atzerrian, uztail eta abuztuan, hamabostaldi bateko egonaldiak. Lan-mota: ekologikoa, etnografikoa, berre-raikuntza e.a. Kuotak: Euskal Herrian eta Espainian: 8.000 PTA. Atzerrian, lekuen arabera. Izenemate epeak: a) Atzerriarako, apirilaren 25etik aurrera; b) Espainiarako, maiatzaren 2tik aurrera; eta Euskal Autonomi Elkartetako, maiatzaren 9tik aurrera.

"gaztetan gehiegizko obsesioa nuen izarra izateko, eta hori ez zen ona izan".

JOHN GIELGUD AKTOREA, EUSKALDUNON EGUNKARIAN.



Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65

PROMOZIOA **FAGOR**

%40ko beherapena
Apirilaren 30era arte
BAKARRIK






Lose Aranzabal

San Andres auzoa

Tf. 900 79 18 92



MUGARRI



...oan...atzen arduratzen da